

Nazioarteko Zuzenbideari
buruzko oinarrizko testuak (II):
nazioarteko erantzukizuna,
nazioarteko arauen aplikazioa
segurtatzeko prozedurak
eta estatuen jurisdikzio-immunitateak

Textos fundamentales de
Derecho Internacional (II):
responsabilidad internacional,
procedimientos para asegurar
la aplicación de las normas
internacionales e inmunidades
jurisdiccionales de los Estados



CIP. Unibertsitateko Biblioteka/Biblioteca Universitaria

Nazioarteko Zuzenbideari buruzko oinarritzko testuak (II) [Recurso electrónico]: nazioarteko erantzukizuna, nazioarteko arauen aplikazioa segurtatzeko prozedurak eta estatuen jurisdikzio-immunitateak = Textos fundamentales de Derecho Internacional (II): responsabilidad internacional, procedimientos para asegurar la aplicación de las normas internacionales e inmunidades jurisdiccionales de los Estados/ [selección de] Oscar Abalde Cantero, Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga ; Irene Aldasoro Katarain, itzultzailea. – Datos. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (182 p.). – (Legeak = Leyes ; 25)

Texto bilingüe en euskara y español.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-440-0.

1. Derecho internacional. I. Abalde Cantero, Óscar. II. Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo. III. Aldasoro Katarain, Irene, trad. III. Título: Textos fundamentales de Derecho Internacional (II)

(0.034)341.1/.8

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.es/argitalpenak - editorial@ehu.es

ISBN: 978-84-1319-440-0

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEARI
BURUZKO OINARRIZKO TESTUAK (II):
NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA, NAZIOARTEKO
ARAUEN APLIKAZIOA SEGURTATZEKO PROZEDURAK
ETA ESTATUEN JURISDIKZIO-IMMUNITATEAK

TEXTOS FUNDAMENTALES
DE DERECHO INTERNACIONAL (II):
RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL,
PROCEDIMIENTOS PARA ASEGURAR LA APLICACIÓN
DE LAS NORMAS INTERNACIONALES E INMUNIDADES
JURISDICCIONALES DE LOS ESTADOS

OSCAR ABALDE CANTERO
IÑIGO IRURETAGOiena AGIRREZABALAGA
*UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko
eta Europar Batasuneko Zuzenbideko irakasleak*

IRENE ALDASORO KATARAIN
Itzultzailea (Elbuyar Fundazioa)

JOSEBA EZEIZA RAMOS
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

ANA LETURIA NAVAROA
*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Bildumaren koordinatzailea*



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ÍNDICE

AURKIBIDEA



Introducción	8
Presentación	12
SECCIÓN I. RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL Y PROCEDIMIENTOS PARA ASEGURAR LA APLICACIÓN DEL DERECHO INTERNACIONAL	20
Proyecto de artículos sobre la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos	
Adoptado por la Comisión de Derecho Internacional y anexoado en la Resolución 56/83 de la Asamblea General, de 12 de diciembre de 2001	22
Proyecto de artículos sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales	
Adoptado por la Comisión de Derecho Internacional y anexoado en la Resolución 66/100 de la Asamblea General, de 9 de diciembre de 2011	58
Proyecto de artículos sobre la prevención del daño transfronterizo resultante de actividades peligrosas	
Adoptado por la Comisión de Derecho Internacional y anexoado en la Resolución 62/68 de la Asamblea General, de 6 de diciembre de 2007	106
Proyecto de artículos sobre la protección diplomática	
Adoptado por la Comisión de Derecho Internacional y anexoado en la Resolución 62/67 de la Asamblea General, de 6 de diciembre de 2007	124
SECCIÓN II. INMUNIDADES JURISDICCIONALES DE LOS ESTADOS Y DE SUS BIENES	142
Convención de las Naciones Unidas sobre las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes, de 2 de diciembre de 2004	144
Léxico	180

Hitzurrea	9
Aurkezpena	13
I. ATALA: NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN APLIKAZIOA SEGURTATZEKO PROZEDURAK	21
Estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari bu- ruzko artikuluen proiektua	
Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztua eta Batzar Nagusiak 2001eko abenduaren 12ko 56/83 Ebazpenaren eranskinean jasoa	23
Nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua	
Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztua eta Batzar Nagusiak 2011ko abenduaren 9ko 66/100 Ebazpenaren eranskinean jasoa	59
Jarduera arriskutsuen ondorioz gerta daitekeen mugaz gaindiko kaltearen prebentzioari buruzko artikuluen proiektua	
Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztua eta Batzar Nagusiak 2007ko abenduaren 6ko 62/68 Ebazpenaren eranskinean jasoa	107
Babes diplomatikoari buruzko artikuluen proiektua	
Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztua eta Batzar Nagusiak 2007ko abenduaren 6ko 62/67 Ebazpenaren eranskinean jasoa	125
II. ATALA: ESTATUEN ETA HAIEN ONDASUNEN JURISDIKZIO- IMMUNITATEAK	143
Estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, 2004ko abenduaren 2koa	145
Lexikoa	178

Introducción

Es para mí un honor y un placer presentar mediante este prólogo este elogiado trabajo de traducción. Poder trabajar en el ámbito del derecho en euskera, poder usar y recorrer el derecho en euskera, es todavía un sueño, y la condición para que ese hermoso sueño se vaya materializando es disponer del derecho, de las normas jurídicas, en euskera. No es la única condición, pero sí una condición indispensable. Entre los derechos vigentes en nuestro ámbito se encuentra el derecho internacional, que incluye el derecho imperativo, *ius cogens*, y los tratados internacionales ratificados por los Estados. El hecho de tener en euskera las normas jurídicas que contienen esos tratados significa poder conocer en euskera uno de los derechos aplicables en nuestro ámbito, el derecho que nos vincula. Es algo necesario, si deseamos ejercer y desarrollar en euskera el conocimiento de nuestro derecho, nuestro ejercicio y nuestro recorrido jurídico. Quien sabe, a lo mejor algún día los tratados internacionales tendrán también una versión en euskera, y, puestos a soñar, quizá los debates y las dudas interpretativas sobre la manera de aplicarlos se den también en euskera. Pero el primer paso será disponer de estos materiales normativos en euskera. ¡Elogiables, por tanto, las traducciones y afortunado el equipo de traducción que las ha realizado!

Los protagonistas del derecho internacional no son únicamente los estados y sus gobernantes, o las instituciones internacionales, también lo son los pueblos y toda la ciudadanía. La soberanía de los Estados no se limita sólo a través de los tratados internacionales que suscriben, sino también a través del *ius cogens*, las normas consuetudinarias y los principios generales del derecho internacional, incluidas la Declaración Universal de los Derechos Humanos y los principios de la Carta de las Naciones Unidas. El ataque ruso contra Ucrania, que viola claramente el derecho internacional, pone de manifiesto la responsabilidad de los Estados derivada de los daños causados por su actuación ilícita. La realidad de los daños transnacionales es muy compleja. A la hora de reflejarla en un sistema, aún siendo importante, no será suficiente la responsabilidad del estado en base a su carácter internacional, el sistema de responsabilidad establecido por el

Hitzaurrea

Ohore eta plazera da niretzat honako itzulpen lan txalogarria hitzaurre honen bitartez aurkeztea. Euskaraz zuzenbidea landu ahal izatea, zuzenbidea euskaraz ibili eta erabiltzea, oraindik eta oraingoz, amets bat da. Baina amets eder hori gauzatuz joateko baldintza da zuzenbidea, arau juridikoak, euskaraz edukitzea. Ez da baldintza bakarra, baina bai ezinbestekoa. Gure esparruan indarrean dauden zuzenbideen artean nazioarteko zuzenbidea ere badago, eta zuzenbide horretan derrigorrezko zuzenbidea, *ius cogens*, eta Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuak daude. Tratatu horiek jasotzen dituzten arau juridikoak euskaraz edukitzeak esan nahi du gure esparruan aplikagarri den zuzenbideetako bat, gu lotzen gaituen zuzenbidea, euskaraz ezagutu ahal izatea. Beharrezkoa dugu hori, gure zuzenbidearen ezagutza, gure praktika eta bizitza juridikoa euskaraz gauzatu eta garatu nahi badugu. Batek daki, agian egun batean Nazioarteko Tratatuak ere euskarazko bertsio ofiziala izango dute, eta horiei buruzko aplikazioaren inguruko eztabaidak eta interpretazio-zalantzak euskaraz suertatuko dira, amesten jarrita. Baina lehen urratsa material arauemaile horiek euskaraz edukitzea izango da. Txalogarriak, beraz, itzulpenok, eta zorionekoa landu dituen itzultzaile taldea!

Nazioarteko zuzenbidearen protagonistak ez dira soilik estatuak eta haien gobernuak, edo nazioarteko erakundeak, baita herriak eta herritarrak ere. Estatuaren subiranotasuna ez da soilik izenpetzen dituzten nazioarteko itunen bidez mugatzen, baita nazioarteko zuzenbidearen *ius cogens*, ohitura eta printzipio orokorren bidez ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Nazio Batuen Gutunaren printzipioak barne. Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoak, nazioarteko zuzenbidea argi eta garbi urratuz, agerian uzten du Estatuak legez kontrako jarduerak eragindako kalteengatik erantzukizuna. Kalte nazionalen errealitatea konplexu da oso. Hori sistema batean islatzeko orduan, garrantzitsua izanik ere, ez da nahikoa izango nazioarteko nortasunari jarraitzen dion estatuaren erantzukizuna, Nazioarteko Justizia Auzitegian banatzen den erantzukizun-sistema, ezta giza eskubideen aurkako krimenak egin dituz-

Tribunal Internacional de Justicia, ni la responsabilidad penal de los individuos que han cometido crímenes contra los derechos humanos que está en manos del Tribunal Penal Internacional. Disponer de normas que determinen la responsabilidad de los Estados es un paso adelante, pero no es suficiente.

En el mundo postsoberano o postwestfaliano actual, es bien sabido que organizaciones privadas transnacionales, empresas multinacionales, milicias paraestatales, ejércitos privados y todo tipo de personas jurídicas cometen abusos, agresiones, daños y violaciones de los derechos humanos. Esas actividades ilícitas causan graves daños a poblaciones enteras, a grupos o a personas, así como a determinados Estados en situación de vulnerabilidad. Si bien el Estado y estos otros agentes pueden ser considerados moral y políticamente responsables de esas actividades ilícitas y violaciones, el derecho internacional sigue asentado en el formalismo del estatalismo, atribuyendo la responsabilidad jurídica exclusivamente a los Estados y, a lo sumo, a las organizaciones internacionales.

La existencia de un derecho internacional sobre la responsabilidad de los daños es, al menos, un paso adelante en la resolución pacífica de los conflictos. En ese sentido, se debe elogiar la existencia de normas convencionales, como las contenidas en este volumen, que determinen la responsabilidad del Estado, teniendo además en cuenta las excepciones relacionadas con las inmunidades diplomáticas y jurisdiccionales, que aseguran cierta libertad de acción a los Estados y a las organizaciones internacionales. Sin embargo, hemos de desear una reforma que adapte el derecho internacional a otros desarrollos surgidos en las últimas décadas, en los que actores privados como empresas multinacionales, fondos de inversión o entidades financieras han adquirido remedios procesales para exigir la responsabilidad de los Estados, como ocurre con el arbitraje internacional, pero a falta de reciprocidad, esos mismos actores no pueden ser considerados responsables internacionales por sus excesos e injusticias.

Joxerramon BENGOETXEA
Doctor por la Universidad de Edimburgo y catedrático
de Filosofía del Derecho en la Universidad del País Vasco
Vitoria-Gasteiz, 2022-05-24

ten norbanakoen erantzukizun penala ere, Nazioarteko Zigor Auzitegian banatzen dena. Aurrerapausoa da estatuen erantzukizuna zehazten duten arauak izatea, baina ez da aski.

Subiranotasun osteko edo post-westfaliar egungo mundu-mailan, ezaguna da erakunde pribatu transnazionalak, enpresa multinazionalak, milizia paraestatalek, armada pribatuak eta era guztietako pertsona juridikoak abusua eta erasoak, kalteak eta giza eskubideen urraketak egiten dituztela. Zilegi ez diren urraketa horiek kalte larriak eragiten dizkiete populazio osoei, taldeei edo gizakiei, bai eta kalteberatasun-egoeran dauden zenbait Estaturi ere. Estatuak eta beste egile horiek moralki eta politikoki legez kontrako eta urraketa horien erantzuleztat jo badaitezke ere, nazioarteko zuzenbideak estatalismoaren formalismoan finkatuta jarraitzen du, eta erantzukizun juridikoa estatuei eta, gehiezez ere, nazioarteko erakundeei soilik esleitzen die.

Kalteen erantzukizunaren nazioarteko eskubide bat egotea, behintzat, aurrerapausoa da gatazkak modu baketsuan konpontzeko bidean. Ildo horretan, txalotu behar da badirela arau konbentzionalak, hala nola bolumen honetan jasotakoak, Estatuaren erantzukizuna zehazten dutenak, gainera, immunitate diplomatiko eta jurisdikzionalekin lotutako salbuespenak kontutan izanda, azken hauek Estatuei eta nazioarteko erakundeei nolabaiteko ekintza-askatasuna ziurtatzen baitiete. Baina nazioarteko zuzenbidea azken hamarkadetan sortutako beste garapen batzuetara egokituko duen erreforma bat desiratu behar da, non eragile pribatuak, hala nola enpresa multinazionalak, inbertsio-funtsek edo finantza-entitateek Estatuaren erantzukizuna exijitzeko erremedio prozesalak eskuratu dituzten, nazioarteko arbitrajearekin gertatzen den bezala, baina elkarrekikotasun faltan, eragile horiek ezin diren nazioarteko erantzuleztat jo beren gehiegikeria eta bidegabekeriengatik.

Joxerramon BENGOTXEA
Edinburgoko Unibertsitatean doktore, Zuzenbidearen Filosofiako
katedradun Euskal Herriko Unibertsitatean
Gasteizen, 2022-05-24

Presentación

Este volumen de la colección *Legeak-Leyes* que venimos a presentar da continuidad a los textos fundamentales sobre derecho público internacional que fueron incluidos en el número 23 de la colección. Los textos de dicho número nos proporcionaron el entramado básico, aunque incompleto, del derecho internacional en euskera. En esta ocasión queremos concluir dicho entramado y empezar a llenarlo de contenido. Ese es el objetivo que nos ha llevado a seleccionar los textos incluidos en este volumen.

En la actualidad, el derecho internacional está presente en casi todos los ámbitos de la actividad humana y, en consecuencia, cada vez son más numerosas las regulaciones y regímenes sectoriales dentro de él. Todos esos regímenes específicos son consecuencia de vivir en una comunidad internacional cada vez más global e interdependiente, ya que cada vez son menos las cuestiones que carecen de dimensión «internacional».

Sin embargo, en el ámbito del derecho internacional existen normas que proporcionan unidad y carácter sistémico a esta rama del conocimiento, y entre ellas se situarían las normas que hemos incluido en este tomo. En ese sentido, en este ejemplar encontraréis textos básicos sobre la aplicación del derecho internacional. Estas normas son necesarias para garantizar la eficacia del derecho internacional, ya que definirán las condiciones para determinar la responsabilidad derivada de las infracciones de los derechos y obligaciones establecidos en el mismo, su alcance y su ejecución, así como los procedimientos que puedan utilizarse para asegurar la aplicación del derecho internacional.

En cuanto a la responsabilidad internacional, los textos que se presentan traducidos al euskera son los siguientes. En primer lugar, el *proyecto de artículos*

Aurkezpena

Aurkeztera gatozen *Legeak-Leyes* bildumako liburu ki honek jarraipena ematen die bildumako 23. alean jaso ziren nazioarteko zuzenbide publikoari buruzko oinarritzko testu aukeratuei. Orduko hartan, aukeratu ziren testuek nazioarteko zuzenbidearen funtsezko hezurdura osatugabe bat eskaini ziguten euskaraz. Oraingo honetan, hezurdura osatu eta mamiz janzten hasteko asmoa izan dugu. Helburu horrekin egin dugu ale honetan jasota datozen testuen aukeraketa.

Nazioarteko zuzenbideak, gaur egun, giza jardueraren ia esparru guztietan du zer esana eta, ondorioz, gero eta ugariagoak dira nazioarteko zuzenbidearen baitan arauketa eta eraentza sektorialak. Nazioarteko komunitate gero eta globalago eta interdependenteago batean bizitzearen ondorio dira eraentza espezi-fiko hauek guztiak; izan ere, gero eta gutxiago dira «nazioarteko» dimentsiorik ez daukaten gaiak.

Hala ere, nazioarteko zuzenbidearen esparruan badira jakintza-arloari batasuna eta sistema-izaera ematen dieten arauak. Horien artean leudeke liburu ki honetan jaso nahi izan ditugunak. Hain zuzen ere, ale honetan topatuko dituzue nazioarteko zuzenbidearen aplikazioari dagozkion oinarritzko testuak. Arauok nazioarteko zuzenbidearen eraginkortasuna bermatzeko ezinbestekoak dira, hauek ezarriko baitituzte nazioarteko zuzenbideak ezarritako eskubide eta obligazioak urratzen direnean, urraketa horietatik eratortzen den erantzukizuna zehazteko baldintzak, honen irismena eta hau gauzatzeko modua, eta baita nazioarteko zuzenbidearen aplikazioa segurtatzeko balia daitezkeen prozedurak ere.

Nazioarteko erantzukizunari dagokionez hauek dira euskarara itzulita aurkezten diren testuak: Batetik, *estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen*

sobre la responsabilidad de los estados por hechos internacionalmente ilícitos, elaborado por la Comisión de Derecho Internacional en 2001 y que actualmente tiene una relevancia innegable desde la visión del derecho internacional general. En segundo lugar, en base al proyecto de artículos que acabamos de mencionar, pero adaptándolo a las características específicas de las organizaciones internacionales, el *proyecto de artículos sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales*, presentado por la Comisión de Derecho Internacional en 2011. Por último, otro proyecto de artículos de dicha comisión, de 2001: *prevención del daño transfronterizo resultante de actividades peligrosas*.

Junto con las normas que rigen la responsabilidad internacional, los procedimientos para asegurar la aplicación del derecho internacional son necesarios para garantizar la eficacia del mismo. A falta de un órgano o poder centralizado que garantice la aplicación del derecho internacional, hoy día todavía compete en gran medida a los Estados definir e implementar medidas de ejecución del derecho internacional (medidas de autotutela). Así, por un lado, tanto el proyecto de artículos sobre *responsabilidad de los estados por hechos internacionalmente ilícitos* como el proyecto de artículos sobre *responsabilidad de las organizaciones internacionales* recogen el régimen jurídico de las contramedidas, según el cual los Estados, con el fin de obligar al respeto del derecho internacional, pueden responder mediante hechos internacionalmente ilícitos ante hechos ilícitos previos de otro Estado. Por otro, la Comisión de Derecho Internacional aprobó en 2006 el *proyecto de artículos sobre protección diplomática*, en los que se señala que un Estado tiene derecho a reclamar la responsabilidad de otro Estado por el perjuicio causado por un hecho internacionalmente ilícito a una persona de su nacionalidad. Ese texto también se ha incluido en este volumen.

Tal y como hicimos en el número 23 de la colección *Legeak-Leyes* dedicado al derecho internacional, en esta ocasión hemos vuelto a designar como «textos» los aquí recogidos. Y es que, como el/la lector/a habrá advertido, todos los instrumentos jurídicos hasta ahora mencionados son «proyectos de artículos» aprobados por la Comisión de Derecho Internacional, que, obviamente, no son tratados, por lo que no son vinculantes para los sujetos internacionales. Sin embargo, tienen una relevancia innegable. Las disposiciones incluidas en estos proyectos de artículos a menudo contienen normas vigentes en el derecho internacional consuetudinario y, en este sentido, es de destacar cómo en las decisiones de los tribunales judiciales y arbitrales internacionales se han incluido menciones específicas de las mismas. En otras ocasiones, permiten el desarrollo progresivo del derecho internacional, proponiendo normas que con el tiempo pueden llegar a formar parte del mismo. Es decir, a pesar de tratarse de proyectos de artículos, constituyen un instrumento

erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak 2001ean ondurikoa, egun garrantzia ukaezina duena nazioarteko zuzenbide orokorraren ikuspuntutik. Bestetik, aipatu berri dugun artikuluproiektuan oinarrituz, baina nazioarteko erakundeen berriazko ezaugarrietara egokituz, 2011n Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztu zuen *nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua*. Hirugarrenik, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordearen beste artikuluproiektu bat, 2001ean egina, *jarduera arriskutsuen ondorioz gerta daitekeen mugaz gaindiko kaltearen prebentzioari buruzkoa*.

Nazioarteko erantzukizuna eraentzen duten arauekin batera, nazioarteko zuzenbidearen aplikazioa segurtatzeko prozedurak ezinbestekoak dira zuzenbide honen eraginkortasuna bermatzeko. Nazioarteko zuzenbidearen aplikazioa bermatuko lukeen organo edo botere zentralizatu baten faltan, gaur egun, oraindik, estaturen esku dago nagusiki nazioarteko zuzenbidea betearazteko neurriak erabaki eta ezartzea (autotutela neurriak). Hau horrela izanik, batetik, bai *estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektuak*, zein *nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektuak*, kontraneurriei buruzko eraentza jasotzen dute; eraentza hauen arabera estatuak, nazioarteko zuzenbidea errespetatzen dadila behartzeko xedarekin, nazioarteko egitate ez-zilegien bidez erantzun diezaiokete beste estatu batek aurrez burututako ez-zilegiari. Bestetik, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak, 2006an, *babes diplomatikoari buruzko artikuluen proiektua* onartu zuen, zeinetan jasotzen baita estatu batek bere nazionalitatea duten pertsonen beste estatu batek nazioarteko egitate ez-zilegi bat gauzatzearen ondorioz eragindako kaltearen aurrean erreklamatzeko duen eskubidea; testu hau ere liburu honetan jaso dugu.

Nazioarteko zuzenbideari eskaini genion *Legeak-Leyes* bildumako 23. liburukian egin moduan, oraingoan ere «testu» gisa izendatu ditugu hemen jaso ditugunak. Izan ere, irakurlea ohartuko zenez, orain arte aipaturiko tresna juridiko guztiak Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak onaturiko «artikuluproiektuak» dira; hauek, noski, ez dira tratatuak eta, beraz, ez dira lotesleak nazioarteko subjektuentzat. Hauen garrantzia, ordea, ukaezina da. Artikuluen proiektu hauek barneratzen dituzten xedapenek, sarritan, ohiturazko nazioarteko zuzenbidean indarrean dauden arauak jasotzen dituzte; zentzu honetan aipagarria da nola nazioarteko auzitegi judizial zein arbitralen erabakietan hauen aipamen berriazkoak jaso izan diren. Beste zenbaitetan, nazioarteko zuzenbidearen garapen progresiboa ahalbidetzen dute, denborarekin nazioarteko zuzenbidearen parte izatera iritsi daitezkeen arauak proposatuz. Hau da, artikuluen proiektuak izan arren, gaur egun indarrean dagoen edo sortzen ari den

imprescindible para conocer el contenido del derecho internacional consuetudinario actualmente vigente o emergente en los temas mencionados.

Finalmente, hemos incluido en el presente volumen otra cuestión relacionada con la aplicación del derecho internacional en general y, más concretamente, con el ejercicio de la responsabilidad internacional: las inmunidades jurisdiccionales de los Estados. En virtud del principio de soberanía y del principio de igualdad, los Estados, en los casos determinados por las normas, pueden negarse a que sus órganos de gobierno o sus bienes puedan quedar sometidos al poder jurisdiccional de otro Estado. En ese sentido, las inmunidades jurisdiccionales pueden limitar el ejercicio efectivo de la responsabilidad de los Estados y, por ello, hemos incluido en este volumen la *Convención de las Naciones Unidas sobre las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes*, proclamada en Nueva York el 2 de diciembre de 2004 y convertida ya en texto básico sobre la materia.

Nos alegraría que estos textos en euskera tuvieran un recorrido en el futuro, ya que, por un lado, sería indicador de un trabajo bien realizado y, por otro, una prueba de que el derecho internacional sigue avanzando en el mundo del euskera. En cualquier caso, nos queda la satisfacción por el esfuerzo realizado.

Iñigo IRURETAGOIENA AGIRREZABALAGA
Oscar ABALDE CANTERO

ohiturazko nazioarteko zuzenbidearen edukia ezagutzeko ezinbesteko tresna dira aipaturiko gaietan.

Amaitzeko, nazioarteko zuzenbidearen aplikazioari, oro har, eta, zehatzago, nazioarteko erantzukizunaren gauzatzeari loturik dagoen beste gai bat ere barneratu dugu oraingo alean: estatuen jurisdikzio-immunitateak. Subiranotasun printzipioaren eta berdintasun printzipioaren ondorioz, estatuak, arauak zehazturiko kasuetan, uko egin diezaiokete beraien burua edo beraien ondasunak beste estatu baten botere jurisdikzionalaren menpe jartzeari. Zentzu honetan, jurisdikzio-immunitateak estatuen erantzukizuna egiazki gauzatzeko muga izan daitezke eta, horregatik, liburuki honetan jaso dugu *estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa*, New Yorken egina, 2004ko abenduaren 2an, gaiari buruzko oinarrizko testu bihurtu dena gaur egun.

Poztuko ginateke euskarazko testu hauek bide oparoa izango balute etorkizunean, ondo egindako lanaren seinale litzatekeelako batetik, eta, bestetik, nazioarteko zuzenbideak euskararen munduan bere lekua egiten jarraitzen duenaren froga litzatekeelako. Edozein kasutan, honetara bideratu dugun ahalgineararen emaitzak eragiten digun atsegina geratuko zaigu.

Iñigo IRURETAGOIENA AGIRREZABALAGA
Oscar ABALDE CANTERO

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEARI
BURUZKO OINARRIZKO TESTUAK (II):
NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA,
NAZIOARTEKO ARAUEN APLIKAZIOA
SEGURTATZEKO PROZEDURAK
ETA ESTATUEN JURISDIKZIO-
IMMUNITATEAK

TEXTOS FUNDAMENTALES
DE DERECHO INTERNACIONAL (II):
RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL,
PROCEDIMIENTOS PARA ASEGURAR
LA APLICACIÓN DE LAS NORMAS
INTERNACIONALES E INMUNIDAD
JURISDICCIONAL DE LOS ESTADOS

SECCIÓN I:
RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL
Y PROCEDIMIENTOS
PARA ASEGURAR LA APLICACIÓN
DEL DERECHO INTERNACIONAL

I. ATALA:
NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA
ETA NAZIOARTEKO
ZUZENBIDEAREN APLIKAZIOA
SEGURTATZEKO PROZEDURAK

PROYECTO DE ARTÍCULOS SOBRE LA RESPONSABILIDAD DEL ESTADO POR HECHOS INTERNACIONALMENTE ILÍCITOS

Resolución aprobada por la Asamblea General
[sobre la base del informe de la Sexta Comisión (A/56/589 y Corr.1)]

56/83. Responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos

La Asamblea General,

Habiendo examinado el capítulo IV del informe de la Comisión de Derecho Internacional sobre la labor realizada en su 53.º período de sesiones¹, que contiene el proyecto de artículos sobre la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos,

Observando que la Comisión de Derecho Internacional decidió recomendar a la Asamblea General que tomara nota del proyecto de artículos sobre la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos en una resolución e incluyera el proyecto de artículos como anexo de esa resolución, y que estudiase en una etapa posterior, a la luz de la importancia del tema, la posibilidad de convocar una conferencia internacional de plenipotenciarios para examinar el proyecto de artículos con miras a concertar una convención sobre el tema²,

¹ *Documentos Oficiales de la Asamblea General, quincuagésimo sexto período de sesiones, Suplemento N.º 10 y correcciones (A/56/10 y Corr. 1 y 2).*

² *Ibid.*, párrs. 72 y 73.

ESTATUAK NAZIOARTEKO EGITATE EZ-ZILEGIENGATIK DUEN ERANTZUKIZUNARI BURUZKO ARTIKULUEN PROIEKTUA

Batzar Nagusiak onarturiko ebazpena

[*oinarri harturik Seigarren Batzordearen txostena (A/56/589 eta 1. zuzenk.)*]

56/83. Estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizuna

Batzar Nagusiak,

Azterturik Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak bere 53. bilkuraldian¹ egindako txostenaren IV. kapitulua, zeinean jasotzen baita estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua,

Ikusirik Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak erabaki zuela Batzar Nagusiari gomendatzea kontuan har zezala ebazpen batean estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua eta sar zezala artikuluen proiektua ebazpen horren eranskin gisa, eta azter zezala geroagoko etapa batean, gaiaren garrantziaren argitan, ahal osokoen nazioarteko konferentzia bat deitzeko posibilitatea artikuluko proiektua aztertzeko, gaiari buruzko konbentzio bat hitzartzeko asmoz²,

¹ Batzar Nagusiaren Dokumentu Ofizialak, berrogeita hamaseigarren bilkuraldia, 10. gehigarria eta zuzenketak (A/56/10 eta 1. eta 2. zuzenketak).

² *Ibid.*, 72. eta 73. paragrafoak.

Destacando la importancia permanente de la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional, como se menciona en el apartado *a)* del párrafo 1 del Artículo 13 de la Carta de las Naciones Unidas,

Observando que el tema de la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos reviste gran importancia en las relaciones entre los Estados,

1. *Acoge con beneplácito* la conclusión de la labor de la Comisión de Derecho Internacional respecto de la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos y su aprobación del proyecto de artículos, así como de un comentario detallado acerca del tema;
2. *Expresa su agradecimiento* a la Comisión de Derecho Internacional por su contribución continua a la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional;
3. *Toma nota* de los artículos sobre la responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos, presentados por la Comisión de Derecho Internacional, cuyo texto figura en el anexo de la presente resolución, y los señala a la atención de los gobiernos, sin perjuicio de la cuestión de su futura aprobación o de otro tipo de medida, según corresponda;
4. *Decide* incluir en el programa provisional de su quincuagésimo noveno período de sesiones un tema titulado «Responsabilidad del Estado por hechos internacionalmente ilícitos».

85.^a sesión plenaria
12 de diciembre de 2001

Azpmarratuz nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioaren eta garapen progresiboaren garrantzi iraunkorra, Nazio Batuen Gutunaren 13. artikulua 1. paragrafoa) atalean aipatu bezala,

Ikusirik estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunaren gaiak garrantzi handia duela estatuen arteko harremanetan,

1. *Onespenez hartzen du* estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari buruz Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak egin dako lanaren amaiera eta hark onarturiko artikulua-proiektua, eta, orobat, gaiari buruzko iruzkin xehe bat;
2. *Esker ona adierazten dio* Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeari hark nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioari eta garapen progresiboari egiten dien etengabeko ekarpenagatik;
3. *Kontuan hartzen ditu* estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizunari buruzko artikulua, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztuak, zeinen testua honako ebazpen honen eranskinean ageri baita, eta gobernuak kontuan har ditzaten seinalatzen ditu, hargatik eragotzi gabe gero haiek onartzea edo beste edozein neurri hartzea, zer dagokion;
4. *Erabakitzen du* bere berrogeita hemeretzigarren bilkuraldiko behin-behineko egitarauan sartzea «Estatuak nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizuna» izeneko gai bat.

85. osoko bilkura
2001eko abenduaren 12a

ANEXO
RESPONSABILIDAD DEL ESTADO
POR HECHOS INTERNACIONALMENTE ILÍCITOS

PRIMERA PARTE
EL HECHO INTERNACIONALMENTE ILÍCITO DEL ESTADO

CAPÍTULO I
Principios generales

Artículo 1. Responsabilidad del Estado por sus hechos internacionalmente ilícitos

Todo hecho internacionalmente ilícito del Estado genera su responsabilidad internacional.

Artículo 2. Elementos del hecho internacionalmente ilícito del Estado

Hay hecho internacionalmente ilícito del Estado cuando un comportamiento consistente en una acción u omisión:

- a) Es atribuible al Estado según el derecho internacional; y
- b) Constituye una violación de una obligación internacional del Estado.

La calificación del hecho del Estado como internacionalmente ilícito se rige por el derecho internacional. Tal calificación no es afectada por la calificación del mismo hecho como lícito por el derecho interno.

CAPÍTULO II
Atribución de un comportamiento al Estado

Artículo 4. Comportamiento de los órganos del Estado

1. Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de todo órgano del Estado, ya sea que ejerza funciones legislativas, ejecutivas, judiciales o de otra índole, cualquiera que sea su posición en la organización del Estado y tanto si pertenece al gobierno central como a una división territorial del Estado.

ERANSKINA
ESTATUAK NAZIOARTEKO EGITATE EZ-ZILEGIENGATIK
DUEN ERANTZUKIZUNA

LEHENENGO ZATIA
ESTATUAREN NAZIOARTEKO EGITATE EZ-ZILEGIA

I. KAPITULUA
Printzipio orokorrak

1. artikulua. Estatuak bere nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizuna

Estatuaren nazioarteko egitate ez-zilegi orok estatuaren nazioarteko erantzukizuna sortzen du.

2. artikulua. Estatuaren nazioarteko egitate ez-zilegiaren elementuak

Estatuaren nazioarteko egitate ez-zilegia dago, baldin eta egitezko edo ez-egitezko jokabide bat:

- a) Estatuari egotz dakioketena bada nazioarteko zuzenbidearen arabera; eta
- b) Estatuaren nazioarteko betebeharrak bada.

Estatuaren egitatea nazioarteko egitate ez-zilegitzat kalifikatzea nazioarteko zuzenbideak eraentzen du. Barne-zuzenbideak egitate bera zilegitzat kalifikatzeak ez dio eragiten kalifikazio horri.

II. KAPITULUA
Estatuari jokabide bat egotea

4. artikulua. Estatuaren organoen jokabidea

1. Estatuaren egitatez jotzen da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, estatuaren organo ororen jokabidea, direla organoak betetzen dituen funtzioak legegintzakoak, exekutiboak, judizialak edo beste izaera batekoak, edozein ere dela hark estatuaren antolamenduan duen posizioa, eta hala gobernu zentralakoa bada, nola estatuaren lurralde-zati batekoa.

2. Se entenderá que órgano incluye toda persona o entidad que tenga esa condición según el derecho interno del Estado.

Artículo 5. Comportamiento de una persona o entidad que ejerce atribuciones del poder público

Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de una persona o entidad que no sea órgano del Estado según el artículo 4, pero esté facultada por el derecho de ese Estado para ejercer atribuciones del poder público, siempre que, en el caso de que se trate, la persona o entidad actúe en esa capacidad.

Artículo 6. Comportamiento de un órgano puesto a disposición de un Estado por otro Estado

Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de un órgano puesto a su disposición por otro Estado, siempre que ese órgano actúe en el ejercicio de atribuciones del poder público del Estado a cuya disposición se encuentra.

Artículo 7. Extralimitación en la competencia o contravención de instrucciones

El comportamiento de un órgano del Estado o de una persona o entidad facultada para ejercer atribuciones del poder público se considerará hecho del Estado según el derecho internacional si tal órgano, persona o entidad actúa en esa condición, aunque se exceda en su competencia o contravenga sus instrucciones.

Artículo 8. Comportamiento bajo la dirección o control del Estado

Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de una persona o de un grupo de personas si esa persona o ese grupo de personas actúa de hecho por instrucciones o bajo la dirección o el control de ese Estado al observar ese comportamiento.

Artículo 9. Comportamiento en caso de ausencia o defecto de las autoridades oficiales

Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de una persona o de un grupo de personas si esa persona o ese grupo de personas ejerce de hecho atribuciones del poder público en ausencia o en defecto de las autoridades oficiales y en circunstancias tales que requieren el ejercicio de esas atribuciones.

2. Ulertuko da organo dela estatuaren barne-zuzenbidearen arabera izaera hori duen pertsona edo entitate oro.

5. artikulua. Botere publikoaren eskudantziak baliatzen dituen pertsona edo entitate baten jokabidea

Estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, 4. artikuluaen arabera estatuaren organo ez den baina estatu horren zuzenbideak botere publikoaren eskudantziak baliatzeko ahalmena ematen dion pertsona edo entitate baten jokabidea, baldin eta, dagokion kasuan, pertsona edo entitate horrek gaitasun horretan badihardu.

6. artikulua. Estatu batek beste estatu bati eskura jarritako organo baten jokabidea

Estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, beste estatu batek estatu hari eskura jarri dion organo baten jokabidea, baldin eta organo horrek bera eskura duen estatuaren botere publikoaren eskudantziak baliatuz badihardu.

7. artikulua. Eskumenaren mugak gainditzea edo jarraibideak urratzea

Estatuaren organo baten jokabidea edo botere publikoaren eskudantziak baliatzeko ahalmena duen pertsona edo entitate baten jokabidea estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, baldin eta organo, pertsona edo entitate horrek izaera horrekin badihardu, nahiz eta bere eskumena gainditu edo jarraibideak urratu.

8. artikulua. Estatuak zuzenduriko edo kontrolaturiko jokabidea

Estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, pertsona baten edo pertsona-talde baten jokabidea, baldin eta pertsona horrek edo pertsona-talde horrek, izatez, estatu horren jarraibideak jarraituz edo haren zuzendaritzapean edo kontrolpean badihardu jokabide horretan.

9. artikulua. Agintari ofizialen absentzian edo faltan izandako jokabidea

Estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, pertsona baten edo pertsona-talde baten jokabidea, baldin eta pertsona horrek edo pertsona-talde horrek, izatez, botere publikoaren eskudantziak baliatzen baditu agintari ofizialen absentzian edo faltan eta eskudantzia horiek baliatzea beharrezkoa den egoeretan.

Artículo 10. Comportamiento de un movimiento insurreccional o de otra índole

1. Se considerará hecho del Estado según el derecho internacional el comportamiento de un movimiento insurreccional que se convierta en el nuevo gobierno del Estado.

2. El comportamiento de un movimiento insurreccional o de otra índole que logre establecer un nuevo Estado en parte del territorio de un Estado preexistente o en un territorio sujeto a su administración se considerará hecho del nuevo Estado según el derecho internacional.

3. El presente artículo se entenderá sin perjuicio de la atribución al Estado de todo comportamiento, cualquiera que sea su relación con el del movimiento de que se trate, que deba considerarse hecho de ese Estado en virtud de los artículos 4 a 9.

Artículo 11. Comportamiento que el Estado reconoce y adopta como propio

El comportamiento que no sea atribuible al Estado en virtud de los artículos precedentes se considerará, no obstante, hecho de ese Estado según el derecho internacional en el caso y en la medida en que el Estado reconozca y adopte ese comportamiento como propio.

CAPÍTULO III

Violación de una obligación internacional

Artículo 12. Existencia de violación de una obligación internacional

Hay violación de una obligación internacional por un Estado cuando un hecho de ese Estado no está en conformidad con lo que de él exige esa obligación, sea cual fuere el origen o la naturaleza de esa obligación.

Artículo 13. Obligación internacional en vigencia respecto del Estado

Un hecho del Estado no constituye violación de una obligación internacional a menos que el Estado se halle vinculado por dicha obligación en el momento en que se produce el hecho.

Artículo 14. Extensión en el tiempo de la violación de una obligación internacional

1. La violación de una obligación internacional mediante un hecho del Estado que no tenga carácter continuo tiene lugar en el momento en que se produce el hecho, aunque sus efectos perduren.

10. artikulua. Matxinada-tipoko edo bestelako mugimendu baten jokabidea

1. Estatuaren egitatetzat joko da, nazioarteko zuzenbidearen arabera, estatuaren gobernu berri bihurtzen den matxinada-tipoko mugimendu baten jokabidea.

2. Lehendik zegoen estatu batean edo haren administraziopeko lurralde batean estatu berri bat ezartzea lortzen duen matxinada-tipoko edo bestelako mugimendu baten jokabidea estatu berriaren egitatetzat joko da nazioarteko zuzenbidearen arabera.

3. Artikulu honek ez du galaraziko estatuari egoztea 4. artikulutik 9.era birtartekoen indarrez estatuaren egitatetzat jo behar den jokabide oro, edozein ere dela dagokion mugimenduarenarekin duen erlazioa.

11. artikulua. Estatuak berea bezala aitortzen eta hartzen duen jokabidea

Aurreko artikuluen indarrez estatuari egotz ez dakioken jokabidea estatu horren egitatetzat joko da, hala ere, nazioarteko zuzenbidearen arabera, estatuak jokabide hori berea bezala aitortzen eta hartzen duen kasuan eta neurrian.

III. KAPITULUA

Nazioarteko betebeharrak bat urratzea

12. artikulua. Nazioarteko betebeharrak baten urraketaaren existentzia

Estatu batek nazioarteko betebeharrak bat urratzen du estatu horren egitate bat ez datorrenean bat betebeharrak horrek estatuari eskatzen dionarekin, edozein ere dela betebeharrak horren jatorria edo izaera.

13. artikulua. Estatuari dagokionez indarrean dagoen nazioarteko betebeharrak

Estatuaren egitate bat ez da nazioarteko betebeharrak baten urraketa, non eta estatua ez dagoen betebeharrak horri lotuta egitatea gertatzen den unean.

14. artikulua. Nazioarteko betebeharrak baten urraketaaren iraupena

1. Estatuaren egitate jarraitutasunik gabeko baten bidezko nazioarteko betebeharrak baten urraketa egitatea burutzen den unean gertatzen da, nahiz eta haren efektuek iraun.

2. La violación de una obligación internacional mediante un hecho del Estado que tiene carácter continuo se extiende durante todo el período en el cual el hecho continúa y se mantiene su falta de conformidad con la obligación internacional.

3. La violación de una obligación internacional en virtud de la cual el Estado debe prevenir un acontecimiento determinado tiene lugar cuando se produce el acontecimiento y se extiende durante todo el período en el cual ese acontecimiento continúa y se mantiene su falta de conformidad con esa obligación.

Artículo 15. Violación consistente en un hecho compuesto

1. La violación por el Estado de una obligación internacional mediante una serie de acciones u omisiones, definida en su conjunto como ilícita, tiene lugar cuando se produce la acción u omisión que, tomada con las demás acciones u omisiones, es suficiente para constituir el hecho ilícito.

2. En tal caso, la violación se extiende durante todo el período que comienza con la primera de las acciones u omisiones de la serie y se prolonga mientras esas acciones u omisiones se repiten y se mantiene su falta de conformidad con la obligación internacional.

CAPÍTULO IV

Responsabilidad del Estado en relación con el hecho de otro Estado

Artículo 16. Ayuda o asistencia en la comisión del hecho internacionalmente ilícito

El Estado que presta ayuda o asistencia a otro Estado en la comisión por este último de un hecho internacionalmente ilícito es responsable internacionalmente por prestar esa ayuda o asistencia si:

- a) Lo hace conociendo las circunstancias del hecho internacionalmente ilícito; y
- b) El hecho sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por el Estado que presta la ayuda o asistencia.

Artículo 17. Dirección y control ejercidos en la comisión del hecho internacionalmente ilícito

El Estado que dirige y controla a otro Estado en la comisión por este último de un hecho internacionalmente ilícito es internacionalmente responsable por este hecho si:

2. Estatuaren egitate jarraitu baten bidezko nazioarteko betebeharraren baten urraketa egitateak irauten eta nazioarteko betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duen denbora guztira luzatzen da.

3. Estatu bat gertaera jakin bat saihestera behartzen duen nazioarteko betebeharraren bat gertaera hori gertatzen denean urratzen da, eta gertaera horrek irauten eta betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duen denbora guztira luzatzen da urraketa.

15. artikulua. Egitate konposatu baten bidezko urraketa

1. Estatuaren egite edo ez-egite sail bat bada, bere osotasunean ez-zilegitzat definitua, nazioarteko betebeharraren bat urratzen duena, urraketa une honetan gertatzen da: gainerako egite edo ez-egiteekin batera harturik, egitatea ez-zilegizateko aski den egitea edo ez-egitea burutzen denean.

2. Kasu horretan, saileko lehenengo egitearekin edo ez-egitearekin hasien da urraketa, eta egite edo ez-egite horiek errepikatzen diren eta nazioarteko betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duten bitarte guztian luzatzen da.

IV. KAPITULUA

Estatuak beste estatu baten egitateari buruz duen erantzukizuna

16. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegia burutzeko laguntza edo sostengua ematea

Beste estatu bati nazioarteko egitate ez-zilegi bat burutzeko laguntza edo sostengua ematen dion estatua erantzule da, nazioartean, laguntza edo sostengu hori emateagatik, baldin eta:

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegiaren inguruabarren jakitun izanik ematen badu; eta
- b) Egitatea nazioartean ez-zilegia balitz, laguntza edo sostengua eman duen estatuak burutua izatera.

17. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegia burutzean izandako zuzendaritza eta kontrola

Beste estatu bat nazioarteko egitate ez-zilegi bat burutzean zuzentzen eta kontrolatzen duen estatua erantzule da nazioartean egitate horrengatik, baldin eta:

- a) Lo hace conociendo las circunstancias del hecho internacionalmente ilícito; y
- b) El hecho sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por el Estado que dirige y controla.

Artículo 18. Coacción sobre otro Estado

El Estado que coacciona a otro para que cometa un hecho es internacionalmente responsable por este hecho si:

- a) El hecho, de no mediar coacción, constituiría un hecho internacionalmente ilícito del Estado coaccionado; y
- b) El Estado coaccionante actúa conociendo las circunstancias del hecho.

Artículo 19. Efecto del presente capítulo

El presente capítulo se entiende sin perjuicio de la responsabilidad internacional, en virtud de otras disposiciones de estos artículos, del Estado que cometa el hecho en cuestión o de cualquier otro Estado.

CAPÍTULO V

Circunstancias que excluyen la ilicitud

Artículo 20. Consentimiento

El consentimiento válido de un Estado a la comisión por otro Estado de un hecho determinado excluye la ilicitud de tal hecho en relación con el primer Estado en la medida en que el hecho permanece dentro de los límites de dicho consentimiento.

Artículo 21. Legítima defensa

La ilicitud del hecho de un Estado queda excluida si ese hecho constituye una medida lícita de legítima defensa tomada de conformidad con la Carta de las Naciones Unidas.

Artículo 22. Contramedidas en razón de un hecho internacionalmente ilícito

La ilicitud del hecho de un Estado que no esté en conformidad con una obligación internacional suya para con otro Estado queda excluida en el caso y

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegiaren inguruabarren jakitun izanik egiten badu hori; eta
- b) Egitatea nazioartean ez-zilegia balitz, zuzentzen eta kontrolatzen duen estatuak burutua izatera.

18. artikulua. Beste estatu bat hertsatzea

Egitate bat burutzeko beste estatu bat hertsatzen duen estatura erantzule da nazioartean egitate horrengatik, baldin eta:

- a) Egitatea, hertsapenik izan gabe, estatu hertsatuaren nazioarteko egitate ez-zilegi bat balitz; eta
- b) Estatu hertsatzaileak egitatearen inguruabarren jakitun badihardu.

19. artikulua. Kapitulu honen eragina

Kapitulu honek ez du eragotziko delako egitatea burutzen duen estatuak edo beste edozein estatuk, artikuluko hauen beste xedapen batzuen indarrez, duen nazioarteko erantzukizuna.

V. KAPITULUA

Ez-zilegitasuna bazter uzten duten inguruabarrak

20. artikulua. Adostasuna

Estatu batek beste estatu bati egitate jakin bat burutzeko emandako balioko adostasunak bazter uzten du delako egitatearen ez-zilegitasuna lehenengo estatuari dagokionez, egitateak adostasun horren muga barruan dirauen neurrian.

21. artikulua. Defentsa legitimoa

Estatu baten egitatearen ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate hori defentsa legitimoko neurri zilegi bat bada, Nazio Batuen Gutunaren arabera hartua.

22. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegi baten ondoriozko kontraneurriak

Estatu batek beste estatu batekiko duen betebeharrarekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter geratzen da,

en la medida en que ese hecho constituya una contramedida tomada contra ese otro Estado de acuerdo con lo dispuesto en el capítulo II de la tercera parte.

Artículo 23. Fuerza mayor

1. La ilicitud del hecho de un Estado que no esté de conformidad con una obligación internacional de ese Estado queda excluida si ese hecho se debe a un caso de fuerza mayor, es decir, a una fuerza irresistible o un acontecimiento imprevisto, ajenos al control del Estado, que hacen materialmente imposible, en las circunstancias del caso, cumplir con la obligación.

2. El párrafo 1 no es aplicable si:

- a) La situación de fuerza mayor se debe, únicamente o en combinación con otros factores, al comportamiento del Estado que la invoca; o
- b) El Estado ha asumido el riesgo de que se produzca esa situación.

Artículo 24. Peligro extremo

1. La ilicitud del hecho de un Estado que no esté de conformidad con una obligación internacional de ese Estado queda excluida si el autor de ese hecho no tiene razonablemente otro modo, en una situación de peligro extremo, de salvar su vida o la vida de otras personas confiadas a su cuidado.

2. El párrafo 1 no es aplicable si:

- a) La situación de peligro extremo se debe, únicamente o en combinación con otros factores, al comportamiento del Estado que la invoca; o
- b) Es probable que el hecho en cuestión cree un peligro comparable o mayor.

Artículo 25. Estado de necesidad

1. Ningún Estado puede invocar el estado de necesidad como causa de exclusión de la ilicitud de un hecho que no esté de conformidad con una obligación internacional de ese Estado a menos que ese hecho:

- a) Sea el único modo para el Estado de salvaguardar un interés esencial contra un peligro grave e inminente; y

egitate hori, hirugarren zatiko II. kapituluan xedaturikoaren arabera, beste estatu horren kontra hartutako kontraneurri bat den kasuan eta neurrian.

23. artikulua. Ezinbestea

1. Estatu batek bere nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate hori ezinbestek eragina bada, hau da, estatuaren kontrolatik kanpoko indar eutsiezin batek edo ustekabeko gertaera batek eragina, zeinak materialki ezinezkoa bihurtzen baitu, egoera horretan, betebeharra betetzea.

2. Artikulu honen 1. paragrafoa ez da aplikagarria, baldin eta:

- a) Ezinbesteko egoeraren arrazoia, bakarra edo beste faktore batzuekin konbinatua, hura argudiatzen duen estatuaren jokabidea bada; edo
- b) Estatuak bere gain hartu badu egoera hori gertatzeko arriskua.

24. artikulua. Muturreko arriskua

1. Estatu batek bere nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate horren egileak ez badu arrazoizko beste modurik, muturreko arrisku-egoera batean, bere bizia salbatzeko edo beraren ardurapean utzitako beste pertsona batzuen bizia salbatzeko.

2. Artikulu honen 1. paragrafoa ez da aplikagarria, baldin eta:

- a) Muturreko arriskuaren egoeraren arrazoia, bakarra edo beste faktore batzuekin konbinatua, hura argudiatzen duen estatuaren jokabidea bada; edo
- b) Litekeena bada delako egitateak arrisku berdintsu bat edo handiago bat sortzea.

25. artikulua. Beharrian-egoera

1. Ezein estatuk ezin du beharrian-egoera argudiatu estatu horren nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate baten ez-zilegitasuna bazter uzteko kausatzat, salbu eta egitate hori:

- a) Estatuarentzat modu bakarra bada interes funtsezko bat babesteko arrisku larri eta berehalako baten kontra; eta

- b) No afecte gravemente a un interés esencial del Estado o de los Estados con relación a los cuales existe la obligación, o de la comunidad internacional en su conjunto.

2. En todo caso, ningún Estado puede invocar el estado de necesidad como causa de exclusión de la ilicitud si:

- a) La obligación internacional de que se trate excluye la posibilidad de invocar el estado de necesidad; o
- b) El Estado ha contribuido a que se produzca el estado de necesidad.

Artículo 26. Cumplimiento de normas imperativas

Ninguna disposición del presente capítulo excluirá la ilicitud de cualquier hecho de un Estado que no esté de conformidad con una obligación que emana de una norma imperativa de derecho internacional general.

Artículo 27. Consecuencias de la invocación de una circunstancia que excluye la ilicitud

La invocación de una circunstancia que excluye la ilicitud en virtud del presente capítulo se entenderá sin perjuicio de:

- a) El cumplimiento de la obligación de que se trate, en el caso y en la medida en que la circunstancia que excluye la ilicitud haya dejado de existir;
- b) La cuestión de la indemnización de cualquier pérdida efectiva causada por el hecho en cuestión.

SEGUNDA PARTE

CONTENIDO DE LA RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL DEL ESTADO

CAPÍTULO I

Principios generales

Artículo 28. Consecuencias jurídicas del hecho internacionalmente ilícito

La responsabilidad internacional del Estado que, de conformidad con las disposiciones de la primera parte, nace de un hecho internacionalmente ilícito produce las consecuencias jurídicas que se enuncian en la presente parte.

- b) Ez badio larriki eragiten harekiko edo haiekiko betebeharra dagoen estatuen edo estatuen interes funtsezko bati, edo, nazioarteko komunitatearen bati, bere osotasunean harturik berau.

2. Edozein kasutan, ezein estatuk ezin du beharrizan-egoera argudiatu ez-zilegitasuna bazter uzteko kausatzat, baldin eta:

- a) Dagokion nazioarteko betebeharrak bazter uzten badu beharrizan-egoera argudiatzeko aukera; edo
- b) Estatuak parte izan badu beharrizan-egoera sortzen.

26. artikulua. Aginduzko arauak betetzea

Kapitulu honetako ezein xedapenek ez du bazter utziko nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arau batetik eratortzen den betebeharratekin bat ez datorren estatu baten edozein egitatearen ez-zilegitasuna.

27. artikulua. Ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabar bat argudiatzearen ondorioak

Kapitulu honen indarrez ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabar bat argudiatzeak ez du eragotziko:

- a) Dagokion betebeharra betetzea, ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabarra jada existitzen ez den kasuan eta neurrian;
- b) Delako egitateak eragindako edozein galera egiazkoren kalte-ordainaren auzia.

BIGARREN ZATIA

ESTATUAREN

NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNAREN EDUKIA

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

28. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegiaren ondorio juridikoak

Lehenengo zatiaren xedapenen arabera nazioarteko egitate ez-zilegi batek estatuarentzat sortzen den nazioarteko erantzukizunak honako zati honetan adierazten diren ondorio juridikoak eragiten ditu.

Artículo 29. Continuidad del deber de cumplir la obligación

Las consecuencias jurídicas del hecho internacionalmente ilícito con arreglo a lo dispuesto en esta parte no afectan la continuidad del deber del Estado responsable de cumplir la obligación violada.

Artículo 30. Cesación y no repetición

El Estado responsable del hecho internacionalmente ilícito está obligado:

- a) A ponerle fin, si ese hecho continúa;
- b) A ofrecer seguridades y garantías adecuadas de no repetición, si las circunstancias lo exigen.

Artículo 31. Reparación

1. El Estado responsable está obligado a reparar íntegramente el perjuicio causado por el hecho internacionalmente ilícito.

2. El perjuicio comprende todo daño, tanto material como moral, causado por el hecho internacionalmente ilícito del Estado.

Artículo 32. Irrelevancia del derecho interno

El Estado responsable no puede invocar las disposiciones de su derecho interno como justificación del incumplimiento de las obligaciones que le incumben en virtud de la presente parte.

Artículo 33. Alcance de las obligaciones internacionales enunciadas en la presente parte

1. Las obligaciones del Estado responsable enunciadas en la presente parte pueden existir con relación a otro Estado, a varios Estados o a la comunidad internacional en su conjunto, según sean, en particular, la naturaleza y el contenido de la obligación internacional violada y las circunstancias de la violación.

2. La presente parte se entiende sin perjuicio de cualquier derecho que la responsabilidad internacional del Estado pueda generar directamente en beneficio de una persona o de una entidad distinta de un Estado.

29. artikulua. Betebeharra betetzen jarraitu beharra

Zati honetan xedaturikoaren araberako nazioarteko egitate ez-zilegiaren ondorio juridikoek ez diote eragiten estatu erantzuleak urratutako betebeharra betetzen jarraitzeko duen eginbeharrari.

30. artikulua. Bukaraztea eta ez errepikatzea

Nazioarteko egitate ez-zilegiaren erantzule den estatua behartuta dago:

- a) Egitatea bukaraztera, egitateak jarraitzen badu;
- b) Errepikatuko ez den segurtasun eta berme egokiak eskaintzera, egoerak hala eskatzen badu.

31. artikulua. Erreparazioa

1. Estatu erantzulea behartuta dago osoki erreparatzera nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako galera.

2. Galerak barnean hartzen du estatuaren nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako kalte oro, hala materiala nola morala.

32. artikulua. Barne-zuzenbidearen hutsaltasuna

Estatu erantzuleak ezin ditu argudiatu bere barne-zuzenbideko xedapenak honako zati honen indarrez haren ardura diren betebeharrak ez betetzea justifikatzeko.

33. artikulua. Zati honetan adierazitako nazioarteko betebeharren irismena

1. Honako zati honetan adierazten diren estatu erantzulearen betebeharrak izan daitezke beste estatu batekikoak, zenbait estaturekikoak edo nazioarteko komunitatearekikoak, bere osotasunean harturik berau, segun zein diren, bereziki, nazioarteko betebeharraren izaera eta edukia eta urraketa inguruabarrak.

2. Zati honek ez du eragozten estatuaren nazioarteko erantzukizunak pertsona baten edo estatua ez den beste entitate baten mesedetan zuzenean sor dezakeen ezein eskubide.

CAPÍTULO II

Reparación del perjuicio

Artículo 34. Formas de reparación

La reparación íntegra del perjuicio causado por el hecho internacionalmente ilícito adoptará la forma de restitución, de indemnización y de satisfacción, ya sea de manera única o combinada, de conformidad con las disposiciones del presente capítulo.

Artículo 35. Restitución

El Estado responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligado a la restitución, es decir, a restablecer la situación que existía antes de la comisión del hecho ilícito, siempre que y en la medida en que esa restitución:

- a) No sea materialmente imposible;
- b) No entrañe una carga totalmente desproporcionada con relación al beneficio que derivaría de la restitución en vez de la indemnización.

Artículo 36. Indemnización

1. El Estado responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligado a indemnizar el daño causado por ese hecho en la medida en que dicho daño no sea reparado por la restitución.

2. La indemnización cubrirá todo daño susceptible de evaluación financiera, incluido el lucro cesante en la medida en que éste sea comprobado.

Artículo 37. Satisfacción

1. El Estado responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligado a dar satisfacción por el perjuicio causado por ese hecho en la medida en que ese perjuicio no pueda ser reparado mediante restitución o indemnización.

2. La satisfacción puede consistir en un reconocimiento de la violación, una expresión de pesar, una disculpa formal o cualquier otra modalidad adecuada.

3. La satisfacción no será desproporcionada con relación al perjuicio y no podrá adoptar una forma humillante para el Estado responsable.

II. KAPITULUA

Galeraren erreparazioa

34. artikulua. Erreparazio-moduak

Nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako galeraren erreparazio osoak modu hauek izango ditu: lehengoratzea, kalte-ordaina eta satisfazioa, dela barka edo konbinaturik, kapitulu honetako xedapenen arabera.

35. artikulua. Lehengoratzea

Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den estatua behartuta dago lehengoratzerara, hau da, egitate ez-zilegia egin aurreko egoera berrezartzera, lehengoratze horrek baldintza hauek betetzen dituen neurrian:

- a) Ez izatea materialki ezinezkoa;
- b) Lehengoratzetik eratorriko litzatekeen onurak ez inplikatzera neurritz kanpoko karga bat kalte-ordainaren aldean.

36. artikulua. Kalte-ordaina

1. Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den estatua behartuta dago egitate horrek eragindako kaltearen ordaina ematera, lehengoratzeak kalte hori konpontzen ez duen neurrian.

2. Ebaluazio finantzarioa egin dakioken kalte oro estaliko du kalte-ordainak, lortu gabeko irabaziak barne, horiek egiaztatzen diren neurrian.

37. artikulua. Satisfazioa

1. Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den estatua behartuta dago egitate horrek eragindako kalteagatik satisfazioa ematera, kalte hori lehengoratze edo kalte-ordainez errepara ez daitekeen neurrian.

2. Urraketa-aitorpen bat, damu-adierazpen bat, desenkusa formal bat edo beste edozein modalitate egoki izan daiteke satisfazioa.

3. Satisfazioa ez da izango galeraren aldean neurritz kanpoko eta ezin hartuko du estatu erantzulearentzat umiliagarria den formarik.

Artículo 38. Intereses

1. Se debe pagar intereses sobre toda suma principal adeudada en virtud del presente capítulo, en la medida necesaria para asegurar la reparación íntegra. La tasa de interés y el modo de cálculo se fijarán de manera que se alcance ese resultado.

2. Los intereses se devengarán desde la fecha en que debería haberse pagado la suma principal hasta la fecha en que se haya cumplido la obligación de pago.

Artículo 39. Contribución al perjuicio

Para determinar la reparación se tendrá en cuenta la contribución al perjuicio resultante de la acción o la omisión, intencional o negligente, del Estado lesionado o de toda persona o entidad en relación con la cual se exija la reparación.

CAPÍTULO III

Violaciones graves de obligaciones emanadas de normas imperativas del derecho internacional general

Artículo 40. Aplicación del presente capítulo

1. El presente capítulo se aplicará a la responsabilidad internacional generada por una violación grave por el Estado de una obligación que emane de una norma imperativa del derecho internacional general.

2. La violación de tal obligación es grave si implica el incumplimiento flagrante o sistemático de la obligación por el Estado responsable.

Artículo 41. Consecuencias particulares de la violación grave de una obligación en virtud del presente capítulo

1. Los Estados deben cooperar para poner fin, por medios lícitos, a toda violación grave en el sentido del artículo 40.

2. Ningún Estado reconocerá como lícita una situación creada por una violación grave en el sentido del artículo 40, ni prestará ayuda o asistencia para mantener esa situación.

3. El presente artículo se entenderá sin perjuicio de las demás consecuencias enunciadas en esta parte y de toda otra consecuencia que una violación a la que se aplique el presente capítulo pueda generar según el derecho internacional.

38. artikulua. Interesak

1. Beharrezkoa izango da kapitulu honen arabera zor den kopuru nagusiaren gaineko interesak ordaintzea, erreparazio osoa segurtatzeko behar den neurrian. Interes-tasa eta kalkulurako modua emaitza hori lortzeko helburuarekin ezarriko dira.

2. Kopuru nagusia ordaindu behar zen datatik hasi eta ordaintzeko bete-beharra bete den data arte sortuko dira interesak.

39. artikulua. Galeran parte izatea

Erreparazioa zehazteko, kontuan izango da zer parte izan duen galera eragiten, nahitako edo zabarkeriazko egitez edo ez-egitez, estatu kaltetuak edo zeinahi pertsonak edo entitatek, zeini buruz galdatzen baïta erreparazioa.

III. KAPITULUA

Nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arauetatik eratorritako bete-beharren urratze larriak

40. artikulua. Kapitulu hau aplikatzea

1. Kapitulu hau aplikatuko zaio estatuak nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arau batetik eratorritako bete-behar bat larriki urratzean sortutako nazioarteko erantzukizunari.

2. Bete-behar hori urratzea larria da, baldin eta estatu erantzuleak modu agerikoan edo sistematikoan bete ez badu bete-beharra.

41. artikulua. Kapitulu honen arabera bete-behar bat larriki urratzearen ondorio bereziak

1. Estatuak lankidetzan jardun behar dute 40. artikulua zentzuan larria den urraketa oro bide zilegizkoetatik amaitzeko.

2. Ezein estaturik ez du zilegizkotzat aitortuko 40. artikulua zentzuan larria den urraketa batek sorturiko egoera bat, ez eta laguntzarik edo sostengurik emango egoera hori mantentzeko.

3. Artikulu honek ez ditu eragotziko zati honetan adierazitako beste ondorioak, ez eta kapitulu hau aplikatzen zaion urraketa batek nazioarteko zuzenbidearen arabera sor dezakeen beste edozein ondorio.

TERCERA PARTE
MODOS DE HACER EFECTIVA
LA RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL DEL ESTADO

CAPÍTULO I

Invocación de la responsabilidad del Estado

Artículo 42. Invocación de la responsabilidad por el Estado lesionado

Un Estado tendrá derecho como Estado lesionado a invocar la responsabilidad de otro Estado si la obligación violada existe:

- a) Con relación a ese Estado individualmente; o
- b) Con relación a un grupo de Estados del que ese Estado forme parte, o con relación a la comunidad internacional en su conjunto, y la violación de la obligación:
 - i) Afecta especialmente a ese Estado; o
 - ii) Es de tal índole que modifica radicalmente la situación de todos los demás Estados con los que existe esa obligación con respecto al ulterior cumplimiento de ésta.

Artículo 43. Notificación de la reclamación por el Estado lesionado

1. El Estado lesionado que invoque la responsabilidad de otro Estado notificará su reclamación a ese Estado.

2. El Estado lesionado podrá especificar, en particular:

- a) El comportamiento que debería observar el Estado responsable para poner fin al hecho ilícito, si ese hecho continúa;
- b) La forma que debería adoptar la reparación de conformidad con las disposiciones de la segunda parte.

Artículo 44. Admisibilidad de la reclamación

La responsabilidad del Estado no podrá ser invocada:

- a) Si la reclamación no se presenta de conformidad con las normas aplicables en materia de nacionalidad de las reclamaciones;

HIRUGARREN ZATIA
ESTATUAREN NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA
BETEARAZTEKO MODUAK

I. KAPITULUA

Estatuaren erantzukizuna galdatzea

42. artikulua. Estatu kaltetuak erantzukizuna galdatzea

Estatu batek eskubidea izango du estatu kaltetu gisa beste estatu baten erantzukizuna galdatzeko, baldin eta urratutako betebeharra bada:

- a) Estatu horrekikoa bakarrik; edo
- b) Estatu hori parte den estatu-talde batekikoa, edo nazioarteko komunitatearekikoa, bere osotasunean harturik berau, eta baldin eta betebeharraren urraketak:
 - i) Bereziki estatu horri eragiten badio; edo
 - ii) Duen izaeragatik, errotik aldatzen badu haiekiko betebeharra dagoen beste estatu guztien egoera, aurrerantzean betebeharrari be-tetzeari dagokionez.

43. artikulua. Estatu kaltetuak erreklamazioa jakinaraztea

1. Beste estatu baten erantzukizuna galdatzen duen estatu kaltetuak estatu hari jakinaraziko dio erreklamazioa.

2. Estatu kaltetuak hauek zehaztu ahal izango ditu bereziki:

- a) Estatu erantzuleak izan behar lukeen jokabidea egitate ez-zilegiari amaiera emateko, egitateak jarraitzen badu;
- b) Erreparazioak izan behar lukeen forma bigarren zatiaren xedapenen arabera.

44. artikulua. Erreklamazioaren onargarritasuna

Estatuaren erantzukizuna ez da galdatu ahal izango:

- a) Erreklamazioa ez bada aurkezten erreklamazioen nazionalitateari buruz aplikagarriak diren arauen arabera;

- b) Si la reclamación está sujeta a la norma del agotamiento de los recursos internos y no se han agotado todas las vías de recurso internas disponibles y efectivas.

Artículo 45. Renuncia al derecho a invocar la responsabilidad

La responsabilidad del Estado no podrá ser invocada:

- a) Si el Estado lesionado ha renunciado válidamente a la reclamación; o
- b) Si, en razón del comportamiento del Estado lesionado, debe entenderse que este ha dado válidamente aquiescencia a la extinción de la reclamación.

Artículo 46. Pluralidad de Estados lesionados

Cuando varios Estados sean lesionados por el mismo hecho internacionalmente ilícito, cada Estado lesionado podrá invocar separadamente la responsabilidad del Estado que haya cometido el hecho internacionalmente ilícito.

Artículo 47. Pluralidad de Estados responsables

1. Cuando varios Estados sean responsables del mismo hecho internacionalmente ilícito, podrá invocarse la responsabilidad de cada Estado en relación con ese hecho.

2. El párrafo 1:

- a) No autoriza a un Estado lesionado a recibir una indemnización superior al daño que ese Estado haya sufrido;
- b) Se entenderá sin perjuicio de cualquier derecho a recurrir contra los otros Estados responsables.

Artículo 48. Invocación de la responsabilidad por un Estado distinto del Estado lesionado

1. Todo Estado que no sea un Estado lesionado tendrá derecho a invocar la responsabilidad de otro Estado de conformidad con el párrafo 2 si:

- a) La obligación violada existe con relación a un grupo de Estados del que el Estado invocante forma parte y ha sido establecida para la protección de un interés colectivo del grupo; o

- b) Erreklamazioa barne-errekurtsoak agortzearen arauari lotuta badago eta barne-errekurtso eskuragarri eta gauzagarri guztiak agortu ez bada.

45. artikulua. Erantzukizuna galdatzeko eskubideari uko egitea

Estatuaren erantzukizuna ez da galdatu ahal izango:

- a) Estatu kaltetuak modu baliozkoan uko egin badio erreklamatzeari; edo
- b) Baldin eta estatu kaltetuaren jokabideagatik ulertu behar bada hark oniritzia eman diola, modu baliozkoan, erreklamazioa azkentzeari.

46. artikulua. Estatu kaltetuen aniztasuna

Estatu bat baino gehiago direnean nazioarteko egitate ez-zilegi berak kaltetuak, estatu kaltetu bakoitzak bakarka galdatu ahal izango du nazioartean zilegi ez den egitatea burutu duen estatuaren erantzukizuna.

47. artikulua. Estatu erantzuleen aniztasuna

1. Estatu bat baino gehiago direnean nazioarteko egitate ez-zilegi beraren erantzule, estatu bakoitzaren erantzukizuna galdatu ahal izango da egitate horri dagokionez.

2. Artikulu honen 1. paragrafoak:

- a) Ez dio estatu kaltetu bati baimenik ematen estatu horrek jasan duen kaltea baino kalte-ordain handiagoa jasotzeko;
- b) Ez du eragotziko gainerako estatu erantzuleen kontra errekurritzeko edozein eskubide.

48. artikulua. Estatu kaltetua ez den beste estatu batek galdatzea erantzukizuna

1. Estatu kaltetua ez den estatu orok izango du eskubidea beste estatu baten erantzukizuna galdatzeko 2. paragrafoaren arabera, baldin eta:

- a) Estatu galdatzailea parte den estatu-talde batekikoa bada betebeharrurratua eta taldearen interes kolektibo bat babesteko ezarria bada betebeharra; edo

b) La obligación violada existe con relación a la comunidad internacional en su conjunto.

2. Todo Estado con derecho a invocar la responsabilidad según el párrafo 1 podrá reclamar al Estado responsable:

- a) La cesación del hecho internacionalmente ilícito y las seguridades y garantías de no repetición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 30; y
- b) El cumplimiento de la obligación de reparación, de conformidad con lo dispuesto en los precedentes artículos, en interés del Estado lesionado o de los beneficiarios de la obligación violada.

3. Los requisitos para la invocación de la responsabilidad por parte de un Estado lesionado previstos en los artículos 43, 44 y 45 serán de aplicación en el caso de invocación de la responsabilidad por parte del Estado con derecho a hacerlo en virtud del párrafo 1.

CAPÍTULO II

Contramedidas

Artículo 49. Objeto y límites de las contramedidas

1. El Estado lesionado solamente podrá tomar contramedidas contra el Estado responsable del hecho internacionalmente ilícito con el objeto de inducirlo a cumplir las obligaciones que le incumban en virtud de lo dispuesto en la segunda parte.

2. Las contramedidas se limitarán al incumplimiento temporario de obligaciones internacionales que el Estado que toma tales medidas tiene con el Estado responsable.

3. En lo posible, las contramedidas serán tomadas en forma que permitan la reanudación del cumplimiento de dichas obligaciones.

Artículo 50. Obligaciones que no pueden ser afectadas por las contramedidas

1. Las contramedidas no afectarán:

- a) La obligación de abstenerse de recurrir a la amenaza o al uso de la fuerza, como está enunciada en la Carta de las Naciones Unidas;

b) Betebehar urratua nazioarteko komunitatearekikoa bada, bere osotasunean harturik berau.

2. Artikulu honen 1. paragrafoaren arabera erantzukizuna galdatzeko esku-bidea duen estatu orok zilegi izango du estatu erantzuleari erreklamatzea:

a) Nazioarteko egitate ez-zilegia bukaraztea eta gehiago errepikatuko ez den segurtasunak eta bermeak, 30. artikuluan xedaturikoaren arabera; eta

b) Erreparazioaren betebeharra betetzea, aurreko artikuluetan xedaturikoaren arabera, estatu kaltetuaren edo betebehar urratuaren onuradunen interesean.

3. Estatu kaltetu batek erantzukizuna galdatzeko dauden betekizunak, 43., 44. eta 45. artikuluetan aurreikusiak, aplikagarriak izango dira 1. paragrafoaren arabera hartarako eskubidea duen estatu batek erantzukizuna galdatzen duen kasuan.

II. KAPITULUA

Kontraneurriak

49. artikulua. Kontraneurrien xedea eta mugak

1. Estatu kaltetuak xede honekin bakarrik hartu ahal izango ditu kontraneurriak nazioarteko egitate ez-zilegiaren erantzule den estatuaren kontra: hari betearazteko bigarren zatian xedaturikoaren indarrez haren ardura diren betebeharrak.

2. Kontraneurriak hartzen dituen estatuak estatu erantzulearekin dituen nazioarteko betebeharrak aldi batez ez betetzera mugatuko dira neurriok.

3. Ahal dela, betebehar horiek betetzeari berriro ekitea ahalbidetzeko moduan hartuko dira kontraneurriak.

50. artikulua. Kontraneurriek eragin ez diezaieketen betebeharrak

1. Kontraneurriek ez diete eragingo betebehar hauei:

a) Indarra erabiltzeko mehatxura edo indarra erabiltzera ez jotzeko betebeharra, Nazio Batuen Gutunean adierazten den bezala;

- b) Las obligaciones establecidas para la protección de los derechos humanos fundamentales;
- c) Las obligaciones de carácter humanitario que prohíben las represalias;
- d) Otras obligaciones que emanan de normas imperativas del derecho internacional general.

2. El Estado que tome contramedidas no quedará exento del cumplimiento de las obligaciones que le incumban:

- a) En virtud de cualquier procedimiento de solución de controversias aplicable entre dicho Estado y el Estado responsable;
- b) De respetar la inviolabilidad de los agentes, locales, archivos y documentos diplomáticos o consulares.

Artículo 51. Proporcionalidad

Las contramedidas deben ser proporcionales al perjuicio sufrido, teniendo en cuenta la gravedad del hecho internacionalmente ilícito y los derechos en cuestión.

Artículo 52. Condiciones del recurso a las contramedidas

1. Antes de tomar contramedidas, el Estado lesionado:

- a) Requerirá al Estado responsable, de conformidad con el artículo 43, que cumpla las obligaciones que le incumben en virtud de la segunda parte; y
- b) Notificará al Estado responsable cualquier decisión de tomar contramedidas y ofrecerá negociar con ese Estado.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado b) del párrafo 1, el Estado lesionado podrá tomar las contramedidas urgentes que sean necesarias para preservar sus derechos.

3. Las contramedidas no podrán tomarse y, en caso de haberse tomado, deberán suspenderse sin retardo injustificado, si:

- a) El hecho internacionalmente ilícito ha cesado; y
- b) La controversia está sometida a una corte o un tribunal facultados para dictar decisiones vinculantes para las partes.

4. No se aplicará el párrafo 3 si el Estado responsable no aplica de buena fe los procedimientos de solución de controversias.

- b) Oinarrizko giza eskubideak babesteko ezarritako betebeharrak;
- c) Errepresaliak debekatzen dituzten izaera humanitarioko betebeharrak;
- d) Nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arauetatik eratorritako beste betebeharrak.

2. Kontraneurriak hartzen dituen estatuak salbuespenik gabe bete beharko ditu betebeharrak hauek:

- a) Estatu horren eta estatu erantzulearen artean gatazkak konpontzeko aplikagarria den edozein prozeduraren indarrez dagozkionak;
- b) Agente, lokal, artxibategi eta dokumentu diplomatiko edo kontsularren bortxaezintasuna errespetatzeko dagozkionak.

51. artikulua. Proporzionaltasuna

Kontraneurriak proportzionalak izango dira jasandako galerarekiko, kontuan izanik nazioarteko egitate ez-zilegiaren larritasuna eta auzitan dauden eskubideak.

52. artikulua. Kontraneurriak hartzeko baldintzak

1. Kontraneurriak hartu baino lehen, estatu kaltetuak:

- a) Estatu erantzuleari eskatuko dio, 43. artikuluaaren arabera, bete ditzala bigarren zatia indarrez haren ardura diren betebeharrak; eta
- b) Estatu erantzuleari jakinaraziko dio kontraneurriak hartzeko edozein erabaki, eta estatu harekin negoziatzeko eskainiko da.

2. Artikulu honen 1. paragrafoaren b) atalean xedaturikoa gorabehera, estatu kaltetuak bere eskubideak babesteko beharrezkoak diren urgentziazko kontraneurriak hartu ahal izango ditu.

3. Ezingo dira kontraneurriak hartu eta, hartu diren kasuan, geldieran utzi beharko dira ezin justifikatzeko atzerapenik gabe, baldin eta:

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegia bukatu bada; eta
- b) Parteentzat lotesleak diren erabakiak ezartzeko ahalmena duen gorte edo auzitegi baten menara jarrita badago gatazka.

4. Artikulu honen 3. paragrafoa ez da aplikatuko estatu erantzuleak ez baiditu fede onez aplikatzen gatazkak konpontzeko prozedurak.

Artículo 53. Terminación de las contramedidas

Se pondrá fin a las contramedidas tan pronto como el Estado responsable haya cumplido sus obligaciones en relación con el hecho internacionalmente ilícito de conformidad con lo dispuesto en la segunda parte.

Artículo 54. Medidas tomadas por Estados distintos del Estado lesionado

Este capítulo no prejuzga acerca del derecho de cualquier Estado, facultado por el párrafo 1 del artículo 48 para invocar la responsabilidad de otro Estado, a tomar medidas lícitas contra este Estado para asegurar la cesación de la violación y la reparación en interés del Estado lesionado o de los beneficiarios de la obligación violada.

CUARTA PARTE DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 55. *Lex specialis*

Los presentes artículos no se aplicarán en el caso y en la medida en que las condiciones de existencia de un hecho internacionalmente ilícito, el contenido de la responsabilidad internacional de un Estado o el modo de hacerla efectiva se rijan por normas especiales de derecho internacional.

Artículo 56. Cuestiones de responsabilidad del Estado no reguladas en los presentes artículos

Las normas de derecho internacional aplicables seguirán rigiendo las cuestiones relativas a la responsabilidad del Estado por un hecho internacionalmente ilícito en la medida en que esas cuestiones no estén reguladas en los presentes artículos.

Artículo 57. Responsabilidad de una organización internacional

Los presentes artículos se entenderán sin perjuicio de cualquier cuestión relativa a la responsabilidad, en virtud del derecho internacional, de una organización internacional o de un Estado por el comportamiento de una organización internacional.

53. artikulua. Kontraneurriak amaitzea

Estatu erantzuleak, bigarren zatian xedaturikoaren arabera, nazioarteko egitate ez-zilegiari buruzko bere betebeharrak betetzen dituen bezain laster emango zaie amaiera kontraneurriei.

54. artikulua. Estatu kaltetua ez diren beste estatu batzuek harturiko neurriak

Kapitulu honek ez du eragozten edozein estatuk, 48. artikulua beste estatu baten erantzukizuna galdatzeko ahalmena emanik, estatu horren kontrako neurri zilegizkoak hartzeko duen eskubidea, hartara segurtatzeko urraketa bukaraztea eta estatu kaltetuaren edo betebehar urratuaren onuradunen aldeko erreparazioa.

LAUGARREN ZATIA XEDAPEN OROKORRAK

55. artikulua. *Lex specialis*

Artikulu hauek ez dira aplikatuko, baldin eta nazioarteko egitate ez-zilegi bat egoteko baldintzak, estatu baten nazioarteko erantzukizunaren edukia edo erantzukizuna betetzeko modua nazioarteko zuzenbidearen arau berezien mende badaude.

56. artikulua. Estatuaren erantzukizunari buruzko auzi artikulua hauetan arautu gabeak

Nazioarteko zuzenbidearen arau aplikagarrien mende jarraituko dute estatuak nazioarteko egitate ez-zilegi batengatik duen erantzukizunari buruzko auziak, auzi horiek artikulua hauetan arauturik ez dauden neurrian.

57. artikulua. Nazioarteko erakunde baten erantzukizuna

Artikulu hauek ez dute eragotziko nazioarteko erakunde batek edo, nazioarteko erakunde baten jokabidegatik, estatu batek nazioarteko zuzenbidearen indarrez duen erantzukizunari buruzko ezein auzi.

Artículo 58. Responsabilidad individual

Los presentes artículos se entenderán sin perjuicio de cualquier cuestión relativa a la responsabilidad individual, en virtud del derecho internacional, de cualquier persona que actúe en nombre de un Estado.

Artículo 59. Carta de las Naciones Unidas

Los presentes artículos se entenderán sin perjuicio de la Carta de las Naciones Unidas.

58. artikulua. Erantzukizun indibiduala

Artikulu hauek ez dute eragotziko estatuaren izenean diharduen edozein pertsonak nazioarteko zuzenbidearen indarrez duen erantzukizun indibidualari buruzko ezein auzi.

59. artikulua. Nazio Batuen Gutuna

Artikulu hauek ez dute eragozten Nazio Batuen Gutuna.

PROYECTO DE ARTÍCULOS SOBRE LA RESPONSABILIDAD DE LAS ORGANIZACIONES INTERNACIONALES

Resolución aprobada por la Asamblea General el 9 de diciembre de 2011
[*sobre la base del informe de la Sexta Comisión (A/66/473)*]

66/100. Responsabilidad de las organizaciones internacionales

La Asamblea General,

Habiendo examinado el capítulo V del informe de la Comisión de Derecho Internacional sobre la labor realizada en su 63.º período de sesiones¹, que contiene el proyecto de artículos sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales,

Observando que la Comisión de Derecho Internacional decidió recomendar a la Asamblea General que tomara nota del proyecto de artículos sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales en una resolución e incluyera dicho proyecto como anexo de la resolución, y que estudiara, más adelante, la posibilidad de elaborar una convención basada en el proyecto de artículos²,

¹ *Documentos Oficiales de la Asamblea General, sexagésimo sexto período de sesiones, Suplemento núm. 10 (A/66/10).*

² *Ibid.*, párr. 85.

NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN ERANTZUKIZUNARI BURUZKO ARTIKULUEN PROIEKTUA

Batzar Nagusiak 2011ko abenduaren 9an onarturiko ebazpena
[oinarri harturik Seigarren Batzordearen txostena (A/66/473)]

66/100. Nazioarteko erakundeen erantzukizuna

Batzar Nagusiak,

Azterturik Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak bere 63. bilkuraldian¹ egindako lanari buruzko txostenaren V. kapitulua, zeinean jasotzen baita nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua,

Ikusirik Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak erabaki zuela Batzar Nagusiari gomendatzea kontuan har ezala ebazpen batean nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua eta sar ezala proiektu hori ebazpen horren eranskin gisa, eta azter ezala, geroago, artikuluen proiektuan oinarrituriko konbentzio bat ontzeko posibilitatea²,

¹ *Batzar Nagusiaren Dokumentu Ofizialak, hirurogeita seigarren bilkuraldia, Gehigarria: 10 zk. (A/66/10).*

² *Ibid.*, 85. paragrafoa.

Poniendo de relieve la importancia que siguen teniendo la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional, a que se hace referencia en el Artículo 13, párrafo 1 a), de la Carta de las Naciones Unidas,

Observando que el tema de la responsabilidad de las organizaciones internacionales reviste gran importancia en las relaciones de los Estados y las organizaciones internacionales,

Tomando nota de los comentarios de los gobiernos y los debates de la Sexta Comisión sobre este tema durante el sexagésimo sexto período de sesiones de la Asamblea General¹,

1. *Acoge con beneplácito* que la Comisión de Derecho Internacional haya concluido su labor sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales y haya aprobado el proyecto de artículos y un comentario detallado sobre el tema¹;
2. *Expresa su aprecio* a la Comisión de Derecho Internacional por su incesante contribución a la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional;
3. *Toma nota* de los artículos sobre la responsabilidad de las organizaciones internacionales presentados por la Comisión de Derecho Internacional, cuyo texto figura como anexo de la presente resolución, y los señala a la atención de los gobiernos y las organizaciones internacionales, sin perjuicio de la cuestión de su futura aprobación o de la adopción de otro tipo de medida, según corresponda;
4. *Decide* incluir en el programa provisional de su sexagésimo noveno período de sesiones un tema titulado «Responsabilidad de las organizaciones internacionales» con el fin de examinar, entre otras cuestiones, la de la forma que se podría dar a los artículos.

82.^a sesión plenaria
9 de diciembre de 2011

¹ *Ibid.*, Sexta Comisión, 18.^a a 28.^a y 30.^a sesiones (A/C.6/66/SR.18-28 y 30), y corrección.

Azpmarratuz nolako garrantzia izaten jarraitzen duten nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioak eta garapen progresiboak, zeinari egiten baitzaio erreferentzia Nazio Batuen Gutunaren 13. artikulua 1. paragrafoa a) atalean,

Ikusirik nazioarteko erakundeen erantzukizunaren gaiak garrantzi handia duela estatuen eta nazioarteko erakundeen harremanetan,

Kontuan harturik gobernuen iruzkinak eta Batzar Nagusiaren hirurogeita seigarren bilkuraldian Seigarren Batzordeak gai horri buruz izandako eztabaidak¹,

1. *Onespenez hartzen du* Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko lana amaitu izana eta artikuluproiektua eta gaiari buruzko iruzkin xehe bat onartu izana¹;
2. *Esker ona adierazten dio* Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeari hark nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioari eta garapen progresiboari egiten dien etengabeko ekarpenegatik;
3. *Kontuan hartzen ditu* nazioarteko erakundeen erantzukizunari buruzko artikulua, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak aurkeztuak, zeinen testua honako ebazpen honen eranskinean ageri baita, eta gobernuak eta nazioarteko erakundeek kontuan har ditzaten seinalatzen ditu, hartatik eragotzi gabe gero haiek onartzea edo beste edozein neurri hartzea, zer dagokion;
4. *Erabakitzen du* bere hirurogeita bederatzigarren bilkuraldiko behin-behineko egitarauan sartzea «Nazioarteko erakundeen erantzukizuna» izeneko gai bat, helburu harturik artikuluei zer forma eman dakiekeen aztertzea, besteak beste.

82. osoko bilkura
2011ko abenduaren 9a

¹ *Ibid.* Seigarren Batzordea, 18.etik 28.era arteko eta 30. bilkuraldiak (A/C.6/66/SR.18-28 eta 30), eta zuzenketa.

ANEXO

**RESPONSABILIDAD DE LAS ORGANIZACIONES
INTERNACIONALES**

PRIMERA PARTE

INTRODUCCIÓN

Artículo 1. Alcance de los presentes artículos

1. Los presentes artículos se aplican a la responsabilidad internacional de una organización internacional por un hecho internacionalmente ilícito.

2. Los presentes artículos se aplican también a la responsabilidad internacional de un Estado por un hecho internacionalmente ilícito relacionado con el comportamiento de una organización internacional.

Artículo 2. Definiciones

A los efectos de los presentes artículos:

- a) Se entiende por «organización internacional» una organización instituida por un tratado u otro instrumento regido por el derecho internacional y dotada de personalidad jurídica internacional propia. Además de los Estados, las organizaciones internacionales pueden contar entre sus miembros con otras entidades;
- b) Se entiende por «reglas de la organización», en particular, los instrumentos constitutivos, las decisiones, resoluciones y otros actos de la organización internacional adoptados de conformidad con esos instrumentos, y la práctica bien establecida de la organización;
- c) Se entiende por «órgano de una organización internacional» toda persona o entidad que posea esta condición de conformidad con las reglas de la organización;
- d) Se entiende por «agente de una organización internacional» un funcionario u otra persona o entidad, que no sea un órgano, al que la organización haya encargado cumplir una de sus funciones, o ayudar a cumplirla, y por medio del cual, en consecuencia, la organización actúa.

ERANSKINA
NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN ERANTZUKIZUNA

LEHENENGO ZATIA
SARRERA

1. artikulua. Artikulu hauen irismena

1. Nazioarteko erakunde batek nazioarteko egitate ez-zilegi batengatik duen nazioarteko erantzukizunari aplikatzen zaizkio artikulua hauek.

2. Artikulu hauek aplikatzen zaizkio, orobat, nazioarteko erakunde baten jokabidearekin erlazioaturiko nazioarteko egitate ez-zilegi batengatik estatu batek duen nazioarteko erantzukizunari.

2. artikulua. Definizioak

Artikulu hauei dagokienez:

- a) «Nazioarteko erakundea» esaten denean, tratatu batek edo nazioarteko zuzenbideak eraentzen duen beste tresna batek eraturiko erakunde bat dela ulertzen da, nazioarteko nortasun juridiko propioa duena. Estatu ez gainera, nazioarteko erakundeek beste entitate batzuk ere izan ditzakete kide;
- b) «Erakundearen arauak» esaten denean, bereziki eratze-tresnak eta tresna horien arabera onarturiko erabakiak, ebazpenak eta nazioarteko erakundearen beste egintza batzuk ulertzen dira, eta erakundearen praktika sendoa ezarria;
- c) «Nazioarteko erakunde baten organoa» esaten denean, erakundearen arauen arabera izaera hori duen pertsona edo entitate oro ulertzen da;
- d) «Nazioarteko erakunde baten agentea» esaten denean, funtzionario bat edo beste pertsona edo entitate bat ulertzen da, organo ez dena, zeinari eman baitio erakundeak bere funtzioetariko bat betetzeko edo betetzen laguntzeko enkargua, eta zeinaren bitartez jarduten baitu, ondorioz, erakundeak.

SEGUNDA PARTE
EL HECHO INTERNACIONALMENTE ILÍCITO
DE UNA ORGANIZACIÓN INTERNACIONAL

CAPÍTULO I
Principios generales

Artículo 3. Responsabilidad de una organización internacional por sus hechos internacionalmente ilícitos

Todo hecho internacionalmente ilícito de una organización internacional genera su responsabilidad internacional.

Artículo 4. Elementos del hecho internacionalmente ilícito de una organización internacional

Hay hecho internacionalmente ilícito de una organización internacional cuando un comportamiento consistente en una acción u omisión:

- a) Es atribuible a esa organización según el derecho internacional; y
- b) Constituye una violación de una obligación internacional de esa organización.

Artículo 5. Calificación del hecho de una organización internacional como internacionalmente ilícito

La calificación del hecho de una organización internacional como internacionalmente ilícito se rige por el derecho internacional.

CAPÍTULO II
Atribución de un comportamiento a una organización internacional

Artículo 6. Comportamiento de órganos o agentes de una organización internacional

1. El comportamiento de un órgano o de un agente de una organización internacional en el ejercicio de sus funciones se considerará hecho de esa organización según el derecho internacional, cualquiera que sea la posición del órgano o el agente en relación con la organización.

BIGARREN ZATIA
NAZIOARTEKO ERAKUNDE BATEN NAZIOARTEKO
EGITATE EZ-ZILEGIA

I. KAPITULUA
Printzipio orokorrak

3. artikulua. Nazioarteko erakunde batek bere nazioarteko egitate ez-zilegiengatik duen erantzukizuna

Nazioarteko erakunde baten nazioarteko egitate ez-zilegi orok erakunde horren nazioarteko erantzukizuna sortzen du.

4. artikulua. Nazioarteko erakunde baten nazioarteko egitate ez-zilegiaren elementuak

Nazioarteko erakunde baten nazioarteko egitate ez-zilegia dago, baldin eta egitezko edo ez-egitezko jokabide bat:

- a) Erakunde horri egotz dakiokiena bada nazioarteko zuzenbidearen arabera; eta
- b) Erakunde horren nazioarteko betebeharrak bat urratzea bada.

5. artikulua. Nazioarteko erakunde baten egitatea nazioarteko egitate ez-zilegitzat kalifikatzea

Nazioarteko erakunde baten egitatea nazioarteko egitate ez-zilegitzat kalifikatzea nazioarteko zuzenbideak eraentzen du.

II. KAPITULUA
Nazioarteko erakunde bati jokabide bat egozteak

6. artikulua. Nazioarteko erakunde baten organoen edo agenteen jokabidea

1. Nazioarteko erakunde baten organo batek edo agente batek bere funtzioetan diharduela izandako jokabidea erakunde horren egitatez joko da nazioarteko zuzenbidearen arabera, edozein ere dela organoaren edo agentearen posizioa erakundeari dagokionez.

2. Las reglas de la organización se aplicarán para determinar las funciones de sus órganos y agentes.

Artículo 7. Comportamiento de órganos de un Estado o de órganos o agentes de una organización internacional puestos a disposición de otra organización internacional

El comportamiento de un órgano de un Estado o de un órgano o un agente de una organización internacional que hayan sido puestos a disposición de otra organización internacional se considerará un hecho de esta última organización según el derecho internacional si esta ejerce un control efectivo sobre ese comportamiento.

Artículo 8. Extralimitación en la competencia o contravención de instrucciones

El comportamiento de un órgano o un agente de una organización internacional se considerará un hecho de esa organización según el derecho internacional si tal órgano o agente actúa a título oficial en el marco de las funciones generales de la organización, aunque ese comportamiento exceda de la competencia del órgano o agente o contravenga sus instrucciones.

Artículo 9. Comportamiento que una organización internacional reconoce y adopta como propio

El comportamiento que no sea atribuible a una organización internacional en virtud de los artículos 6 a 8 se considerará, no obstante, hecho de esa organización según el derecho internacional, en el caso y en la medida en que la organización reconozca y adopte ese comportamiento como propio.

CAPÍTULO III

Violación de una obligación internacional

Artículo 10. Existencia de violación de una obligación internacional

1. Hay violación de una obligación internacional por una organización internacional cuando un hecho de esa organización internacional no está en conformidad con lo que de ella exige esa obligación, sea cual fuere el origen o la naturaleza de la obligación en cuestión.

2. El párrafo 1 incluye la violación de toda obligación internacional de una organización con respecto a sus miembros que pueda resultar para una organización internacional de las reglas de la organización.

2. Erakundearen arauak aplikatuko dira haren organoen eta agenteen funtzioak zehazteko.

7. artikulua. Nazioarteko erakunde baten eskura jarriak izan diren estatu baten organoen edo beste nazioarteko erakunde baten organoen zein agenteen jokabidea

Nazioarteko erakunde baten eskura jarriak izan diren estatu baten organoen edo nazioarteko beste erakunde baten organoen zein agenteen jokabidea lehenengo erakunde horren egitatetzat joko da nazioarteko zuzenbidearen arabera, baldin eta erakunde horrek kontrol eraginkor bat badu jokabide horretan.

8. artikulua. Eskumenaren mugak gainditzea edo jarraibideak urratzea

Nazioarteko erakunde baten organo baten edo agente baten jokabidea erakunde horren egitatetzat joko da nazioarteko zuzenbidearen arabera, baldin eta organo edo agente horrek modu ofizialean badihardu erakundearen funtzio orokorren eremuan, nahiz eta jokabide horrek organoaren edo agentearen eskumena gainditu edo erakundearen jarraibideak urratu.

9. artikulua. Nazioarteko erakunde batek berea bezala aitortzen eta hartzen duen jokabidea

Ebazpen honen 6. artikulutik 8.era bitartekoen indarrez nazioarteko erakunde bati egotz ez dakiokkeen jokabidea erakunde horren egitatetzat joko da, hala ere, nazioarteko zuzenbidearen arabera, erakundeak jokabide hori berea bezala aitortzen eta hartzen duen kasuan eta neurrian.

III. KAPITULUA

Nazioarteko betebeharrak urratzea

10. artikulua. Nazioarteko betebeharrak urratzearen existentzia

1. Nazioarteko erakunde batek nazioarteko betebeharrak urratzen du nazioarteko erakunde horren egitate bat ez datorrenean bat betebeharrak horrek erakundeari eskatzen dionarekin, edozein ere dela betebeharrak horren jatorria edo izaera.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan sartzen da nazioarteko erakunde batek erakundearen arauen arabera kideekiko dituen edozein nazioarteko betebeharrak urratzea.

Artículo 11. Obligación internacional vigente respecto de una organización internacional

Un hecho de una organización internacional no constituye violación de una obligación internacional a menos que la organización se halle vinculada por dicha obligación en el momento en que se produce el hecho.

Artículo 12. Extensión en el tiempo de la violación de una obligación internacional

1. La violación de una obligación internacional mediante un hecho de una organización internacional que no tenga carácter continuo tiene lugar en el momento en que se produce el hecho, aunque sus efectos perduren.

2. La violación de una obligación internacional mediante un hecho de una organización internacional que tenga carácter continuo se extiende durante todo el período en el cual el hecho continúa y se mantiene su falta de conformidad con esa obligación.

3. La violación de una obligación internacional en virtud de la cual una organización internacional debe prevenir un acontecimiento determinado tiene lugar cuando se produce el acontecimiento y se extiende durante todo el período en el cual ese acontecimiento continúa y se mantiene su falta de conformidad con esa obligación.

Artículo 13. Violación consistente en un hecho compuesto

1. La violación por una organización internacional de una obligación internacional mediante una serie de acciones u omisiones, definida en su conjunto como ilícita, tiene lugar cuando se produce la acción u omisión que, tomada con las demás acciones u omisiones, es suficiente para constituir el hecho ilícito.

2. En tal caso, la violación se extiende durante todo el período que comienza con la primera de las acciones u omisiones de la serie y se prolonga mientras esas acciones u omisiones se repiten y se mantiene su falta de conformidad con la obligación internacional.

11. artikulua. Nazioarteko erakunde bati dagokionez indarrean dagoen nazioarteko betebeharra

Nazioarteko erakunde baten egitate bat ez da nazioarteko betebeharraren baten urraketa, non eta erakundea ez dagoen betebeharraren horri lotuta egitatea gertatzen den unean.

12. artikulua. Nazioarteko betebeharraren baten urraketa

1. Nazioarteko erakunde baten egitate ez-jarraitu baten bidez nazioarteko betebeharraren bat urratzen denean, egitatea egiten den unean gertatzen da urraketa, nahiz eta haren efektuek iraun.

2. Nazioarteko erakunde baten egitate jarraitu baten bidez nazioarteko betebeharraren bat urratzen denean, egitateak irauten eta nazioarteko betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duen denbora guztira luzatzen da urraketa.

3. Nazioarteko erakunde bat gertaera jakin bat saihestera behartzen duen nazioarteko betebeharraren bat gertaera hori gertatzen denean urratzen da, eta gertaera horrek irauten eta betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duen denbora guztira luzatzen da urraketa.

13. artikulua. Egitate konposatu baten bidezko urraketa

1. Estatuaren egite edo ez-egite sail bat bada, bere osotasunean ez-zilegiztat definitua, nazioarteko betebeharraren bat urratzen duena, urraketa une honetan gertatzen da: gainerako egite edo ez-egiteekin batera harturik, egitatea ez-zilegiztateko aski den egitea edo ez-egitea egiten denean.

2. Kasu horretan, saileko lehenengo egitearekin edo ez-egitearekin hasten da urraketa, eta egite edo ez-egite horiek errepikatzen diren eta nazioarteko betebeharrarekin bat ez etortzen jarraitzen duten bitartean luzatzen da.

CAPÍTULO IV

Responsabilidad de una organización internacional en relación con el hecho de un estado o de otra organización internacional

Artículo 14. Ayuda o asistencia en la comisión de un hecho internacionalmente ilícito

La organización internacional que presta ayuda o asistencia a un Estado o a otra organización internacional en la comisión por ese Estado o por esta última organización de un hecho internacionalmente ilícito es responsable internacionalmente por prestar ayuda o asistencia si:

- a) Lo hace conociendo las circunstancias del hecho internacionalmente ilícito; y
- b) El hecho sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por la organización que presta la ayuda o asistencia.

Artículo 15. Dirección y control ejercidos en la comisión del hecho internacionalmente ilícito

La organización internacional que dirige y controla a un Estado o a otra organización internacional en la comisión por ese Estado o por esta última organización de un hecho internacionalmente ilícito es internacionalmente responsable por este hecho si:

- a) Lo hace conociendo las circunstancias del hecho internacionalmente ilícito; y
- b) El hecho sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por la organización que dirige y controla.

Artículo 16. Coacción sobre un Estado u otra organización internacional

La organización internacional que coacciona a un Estado o a otra organización internacional para que cometan un hecho es internacionalmente responsable por este hecho si:

- a) El hecho, de no mediar coacción, constituiría un hecho internacionalmente ilícito del Estado o la organización internacional coaccionados; y
- b) La organización internacional que ejerce la coacción actúa conociendo las circunstancias del hecho.

IV. KAPITULUA

Nazioarteko erakunde batek estatu baten edo nazioarteko beste erakunde baten egitateari buruz duen erantzukizuna

14. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegi bat burutzeko laguntza edo sostengua ematea

Estatu bati edo nazioarteko beste erakunde bati nazioarteko egitate ez-zilegi bat burutzeko laguntza edo sostengua ematen dion nazioarteko erakundea erantzule da, nazioartean, laguntza edo sostengu hori emateagatik, baldin eta:

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegiaren inguruabarren jakitun izanik ematen badu; eta
- b) Egitatea nazioartean ez-zilegia balitz, laguntza edo sostengua eman duen erakundeak burutua izatera.

15. artikulua. Nazioarteko egitate ez-zilegia burutzean izandako zuzendaritza eta kontrola

Estatu bat edo nazioarteko beste erakunde bat nazioarteko egitate ez-zilegi bat burutzean zuzentzen eta kontrolatzen duen nazioarteko erakundea erantzule da nazioartean egitate horregatik, baldin eta:

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegiaren inguruabarren jakitun izanik egiten badu hori; eta
- b) Egitatea nazioartean ez-zilegia balitz, zuzentzen eta kontrolatzen duen erakundeak burutua izatera.

16. artikulua. Estatu bat edo nazioarteko beste erakunde bat hertsatzea

Estatu bat edo nazioarteko beste erakunde bat nazioarteko egitate ez-zilegi bat egitera hertsatzen duen nazioarteko erakundea erantzule da nazioartean egitate horregatik, baldin eta:

- a) Egitatea, hertsapenik izan gabe, estatu edo nazioarteko erakunde hertsatuen nazioarteko egitate ez-zilegi bat balitz; eta
- b) Hertsapena darabilen nazioarteko erakundeak inguruabarren jakitun badihardu.

Artículo 17. Elusión de obligaciones internacionales mediante decisiones y autorizaciones dirigidas a los miembros

1. Una organización internacional incurre en responsabilidad internacional si se sustrae al cumplimiento de una de sus obligaciones internacionales adoptando una decisión que obliga a Estados miembros o a organizaciones internacionales miembros a cometer un hecho que sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por aquella organización.

2. Una organización internacional incurre en responsabilidad internacional si se sustrae al cumplimiento de una de sus obligaciones internacionales autorizando a Estados miembros o a organizaciones internacionales miembros a cometer un hecho que sería internacionalmente ilícito si fuese cometido por aquella organización y el hecho en cuestión es cometido en virtud de esa autorización.

3. Los párrafos 1 y 2 se aplican independientemente de que el hecho en cuestión sea internacionalmente ilícito para los Estados miembros o las organizaciones internacionales miembros a los que se dirigió la decisión o la autorización.

Artículo 18. Responsabilidad de una organización internacional miembro de otra organización internacional

Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 14 a 17, la responsabilidad internacional de una organización internacional que es miembro de otra organización internacional también surge en relación con un hecho de esta última en las condiciones enunciadas en los artículos 61 y 62 para los Estados que son miembros de una organización internacional.

Artículo 19. Efecto de este capítulo

Este capítulo se entiende sin perjuicio de la responsabilidad internacional del Estado o de la organización internacional que cometan el hecho en cuestión o de cualquier otro Estado u organización internacional.

CAPÍTULO V

Circunstancias que excluyen la ilicitud

Artículo 20. Consentimiento

El consentimiento válido otorgado por un Estado o una organización internacional a la comisión de un hecho determinado por otra organización in-

17. artikulua. Nazioarteko betebeharrak saihestea kideei zuzenduriko erabakien eta baimenen bidez

1. Nazioarteko erakunde batek nazioarteko erantzukizuna du, baldin eta nazioarteko betebehar bat betetzea saihesten badu erabaki bat hartuz, zeinaren bidez behartzen baitira estatu kideak edo nazioarteko erakunde kideak egitate bat burutzera, erakunde hark burutua balitz nazioartean ez-zilegi litzatekeena.

2. Nazioarteko erakunde batek nazioarteko erantzukizuna du, baldin eta bere nazioarteko betebeharretariko bat betetzea saihesten badu estatu kideei edo nazioarteko erakunde kideei baimena emanaz egitate bat burutzeko, erakunde hark burutua balitz nazioartean ez-zilegi litzatekeena, eta delako egitatea baimen horren indarrez egiten bada.

3. Erabakia edo baimena zuzendu zitzaien estatu kideentzat edo nazioarteko erakunde kideentzat delako egitatea nazioartean ez-zilegia den edo ez kontuan hartu gabe aplikatuko dira 1. eta 2. paragrafoak.

18. artikulua. Nazioarteko beste erakunde baten kide den nazioarteko erakunde baten erantzukizuna

Hargatik eragotzi gabe 14. artikulutik 17.era bitartekoetan xedaturikoa, nazioarteko beste erakunde baten kide den nazioarteko erakunde baten nazioarteko erantzukizuna orobat sortzen da beste erakunde horren egitate bati dagokionez 61. eta 62. artikuluetan nazioarteko erakunde baten kide diren estatuentzat adierazitako baldintzetan.

19. artikulua. Kapitulu honen eragina

Kapitulu honek ez du eragotziko delako egitatea burutzen duen estatuaren edo nazioarteko erakundearen erantzukizuna, edo beste edozein estatu edo nazioarteko erakunderena.

V. KAPITULUA

Ez-zilegitasuna bazter uzten duten inguruabarrak

20. artikulua. Adostasuna

Estatu batek edo nazioarteko erakunde batek nazioarteko beste erakunde bati egitate jakin bat burutzeko emandako baliozko adostasunak

ternacional excluye la ilicitud de tal hecho en relación con el Estado o la primera organización en la medida en que el hecho permanece dentro de los límites de dicho consentimiento.

Artículo 21. Legítima defensa

La ilicitud del hecho de una organización internacional queda excluida en el caso y en la medida en que ese hecho constituya una medida lícita de legítima defensa en virtud del derecho internacional.

Artículo 22. Contramedidas

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en los párrafos 2 y 3, la ilicitud de un hecho de una organización internacional que no esté en conformidad con una obligación internacional de esa organización para con un Estado u otra organización internacional queda excluida en el caso y en la medida en que ese hecho constituya una contramedida adoptada de acuerdo con las condiciones de fondo y de procedimiento que exige el derecho internacional, incluidas las enunciadas en el capítulo II de la cuarta parte para las contramedidas adoptadas contra otra organización internacional.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo 3, una organización internacional no podrá tomar contramedidas contra un Estado miembro o una organización internacional miembro responsables a menos que:

- a) Se cumplan las condiciones recogidas en el párrafo 1;
- b) Las contramedidas no sean incompatibles con las reglas de la organización; y
- c) No existan medios adecuados para inducir de otro modo al Estado responsable o a la organización internacional responsable a cumplir sus obligaciones de cese de la violación y de reparación.

3. Una organización internacional no podrá tomar contramedidas contra un Estado miembro o una organización internacional miembro en respuesta a una violación de una obligación internacional establecida en las reglas de la organización a menos que dichas contramedidas estén previstas en esas reglas.

Artículo 23. Fuerza mayor

1. La ilicitud del hecho de una organización internacional que no esté en conformidad con una obligación internacional de esa organización queda excluida si ese hecho se debe a fuerza mayor, es decir, a una fuerza irresistible o a

bazter uzten du delako egitatearen ez-zilegitasuna estatuari edo lehenengo erakundeari dagokionez, egitateak adostasun horren mugen barruan dirauen neurrian.

21. artikulua. Defentsa legitimoa

Nazioarteko erakunde baten egitatearen ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate hori defentsa legitimoko neurri zilegi bat bada nazioarteko zuzenbidearen indarrez.

22. artikulua. Kontraneurriak

1. Hargatik eragotzi gabe 2. eta 3. paragrafoetan xedaturikoa, nazioarteko erakunde batek estatu batekiko edo nazioarteko beste erakunde batekiko duen betebeharrak batekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate hori kontraneurri bat bada, nazioarteko zuzenbideak hartarako galdatzen dituen funtsezko eta prozedurazko baldintzak betetzen dituen, barne harturik nazioarteko beste erakunde baten kontra harturiko kontraneurrientzat laugarren zatia II. kapituluari adierazitakoak.

2. Hargatik eragotzi gabe 3. paragrafoan xedaturikoa, nazioarteko erakunde batek ez du kontraneurririk hartu ahal izango estatu kide baten edo nazioarteko erakunde kide baten kontra, salbu eta:

- a) 1. paragrafoan jasotako baldintzak betetzen badira;
- b) Kontraneurriak erakundearen arauekin bateraezinak ez badira; eta
- c) Baliabide egokirik ez badago estatu erantzuleari edo nazioarteko erakunde erantzuleari urraketa bukatzeko eta erreparazioa egiteko dituen betebeharrak beste modu batera betearazteko.

3. Nazioarteko erakunde batek ez du hartu ahal izango kontraneurririk estatu kide baten edo nazioarteko erakunde kide baten kontra erakundearen arauetan ezarritako nazioarteko betebeharrak bat urratzearen erantzunetan, non eta kontraneurri horiek aurreikusita ez dauden arau horietan.

23. artikulua. Ezinbestea

1. Nazioarteko erakunde batek bere nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter geratzen da, baldin eta egitate hori ezinbestek eragina bada, hau da, erakundearen

un acontecimiento imprevisto ajenos al control de la organización, que hacen materialmente imposible, en las circunstancias del caso, cumplir con la obligación.

2. El párrafo 1 no es aplicable si:

- a) La situación de fuerza mayor se debe, por sí sola o en combinación con otros factores, al comportamiento de la organización que la invoca; o
- b) La organización ha asumido el riesgo de que se produzca esa situación.

Artículo 24. Peligro extremo

1. La ilicitud del hecho de una organización internacional que no esté en conformidad con una obligación internacional de esa organización queda excluida si el autor de ese hecho no tiene razonablemente, en una situación de peligro extremo, otro modo de salvar su vida o la vida de otras personas confiadas a su cuidado.

2. El párrafo 1 no es aplicable si:

- a) La situación de peligro extremo se debe, por sí sola o en combinación con otros factores, al comportamiento de la organización que la invoca; o
- b) Es probable que el hecho en cuestión cree un peligro comparable o mayor.

Artículo 25. Estado de necesidad

1. Una organización internacional no puede invocar el estado de necesidad como causa de exclusión de la ilicitud de un hecho que no esté en conformidad con una obligación internacional de esa organización a menos que ese hecho:

- a) Sea el único modo para la organización de salvaguardar contra un peligro grave e inminente un interés esencial de sus Estados miembros o de la comunidad internacional en su conjunto cuando la organización, en virtud del derecho internacional, tiene la función de proteger ese interés; y
- b) No afecte gravemente a un interés esencial del Estado o de los Estados con relación a los cuales existe la obligación internacional, o de la comunidad internacional en su conjunto.

kontroletik kanpoko indar eutsiezin batek edo ustekabeko gertaera batek eragina, zeinak materialki ezinezkoa bihurtzen baitu, egoera horretan, betebeharra betetzea.

2. Artikulu honen 1. paragrafoa ez da aplikagarria, baldin eta:

- a) Ezinbesteko egoeraren arrazoia, bakarra edo beste faktore batzuekin konbinatua, ezinbestea argudiatzen duen erakundearen jokabidea bada; edo
- b) Erakundeak bere gain hartu badu egoera hori gertatzeko arriskua.

24. artikulua. Muturreko arriskua

1. Nazioarteko erakunde batek bere nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate bat burutzen badu, egitate horren ez-zilegitasuna bazter gertatzen da, baldin eta egitate horren egileak ez badu arrazoizko beste modurik, muturreko arrisku-egoera batean, bere bizia salbatzeko edo beraren ardurapean utzitako beste pertsona batzuen bizia salbatzeko.

2. Artikulu honen 1. paragrafoa ez da aplikagarria baldin eta:

- a) Muturreko arrisku-egoeraren arrazoia, bakarra edo beste faktore batzuekin konbinatua, muturreko arrisku-egoera argudiatzen duen erakundearen jokabidea bada; edo
- b) Litekeena bada delako egitateak arrisku berdintsu bat edo handiago bat sortzea.

25. artikulua. Beharrian-egoera

1. Nazioarteko erakunde batek ezin du beharrian-egoera argudiatu erakunde horren nazioarteko betebeharrak batekin bat ez datorren egitate baten ez-zilegitasuna bazter uzteko kausatzat, salbu eta egitate hori:

- a) Erakundearentzat modu bakarra bada bere estatu kideen edo nazioarteko komunitatearen, bere osotasunean harturik berau, funtsezko interes bat babesteko arrisku larri eta berehalako baten aurrean, baldin eta erakundeak interes hori babesteko funtzioa badu nazioarteko zuzenbidearen indarrez; eta
- b) Estatu batekiko edo batzuekiko nazioarteko betebeharra egonik, haien interes funtsezko bati edo, nazioarteko komunitatearen bati, bere osotasunean harturik berau, ez badio larriki eragiten.

2. En todo caso, una organización internacional no puede invocar el estado de necesidad como causa de exclusión de la ilicitud si:

- a) La obligación internacional de que se trate excluye la posibilidad de invocar el estado de necesidad; o
- b) La organización ha contribuido a que se produzca el estado de necesidad.

Artículo 26. Cumplimiento de normas imperativas

Ninguna disposición de este capítulo excluirá la ilicitud de cualquier hecho de una organización internacional que no esté en conformidad con una obligación que emana de una norma imperativa de derecho internacional general.

Artículo 27. Consecuencias de la invocación de una circunstancia que excluye la ilicitud

La invocación de una circunstancia que excluye la ilicitud en virtud de este capítulo se entenderá sin perjuicio de:

- a) El cumplimiento de la obligación de que se trate, en el caso y en la medida en que la circunstancia que excluye la ilicitud haya dejado de existir;
- b) La cuestión de la indemnización de cualquier pérdida efectiva causada por el hecho en cuestión.

TERCERA PARTE

CONTENIDO DE LA RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL DE UNA ORGANIZACIÓN INTERNACIONAL

CAPÍTULO I

Principios generales

Artículo 28. Consecuencias jurídicas del hecho internacionalmente ilícito

La responsabilidad internacional de una organización internacional que, de conformidad con las disposiciones de la segunda parte, nace de un hecho internacionalmente ilícito produce las consecuencias jurídicas que se enuncian en esta parte.

2. Edozein kasutan, nazioarteko erakunde batek ezin du beharrizan-egoera argudiatu ez-zilegitasuna bazter uzteko kausatzat, baldin eta:

- a) Dagokion nazioarteko betebeharrak bazter uzten badu beharrizan-egoera argudiatzeko aukera; edo
- b) Erakundeak parte izan badu beharrizan-egoera sortzen.

26. artikulua. Aginduzko arauak betetzea

Kapitulu honetako ezein xedapenek ez du bazter utziko nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arau batetik eratoritzen den betebeharratekin bat ez datorren nazioarteko erakunde baten edozein egitatearen ez-zilegitasuna.

27. artikulua. Ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabar bat argudiatzearen ondorioak

Kapitulu honen indarrez ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabar bat argudiatzeak ez du eragotziko:

- a) Dagokion betebeharra betetzea, ez-zilegitasuna bazter uzten duen inguruabarra jada existitzen ez den kasuan eta neurrian;
- b) Delako egitateak eragindako edozein galera egiazkoren kalte-ordainaren auzia.

HIRUGARREN ZATIA

NAZIOARTEKO ERAKUNDE BATEN NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNAREN EDUKIA

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

28. artikulua. Nazioartean ez-zilegi den egitatearen ondorio juridikoak

Bigarren zatiaren xedapenen arabera, nazioarteko egitate ez-zilegi batetik nazioarteko erakunde batentzat sortzen den nazioarteko erantzukizunak zati honetan adierazten diren ondorio juridikoak eragiten ditu.

Artículo 29. Continuidad del deber de cumplir la obligación

Las consecuencias jurídicas del hecho internacionalmente ilícito con arreglo a lo dispuesto en esta parte no afectan la continuidad del deber de la organización internacional responsable de cumplir la obligación violada.

Artículo 30. Cesación y no repetición

La organización internacional responsable del hecho internacionalmente ilícito está obligada:

- a) A ponerle fin, si ese hecho continúa;
- b) A ofrecer seguridades y garantías adecuadas de no repetición, si las circunstancias lo exigen.

Artículo 31. Reparación

1. La organización internacional responsable está obligada a reparar íntegramente el perjuicio causado por el hecho internacionalmente ilícito.

2. El perjuicio comprende todo daño, tanto material como moral, causado por el hecho internacionalmente ilícito de la organización internacional.

Artículo 32. Relevancia de las reglas de la organización

1. La organización internacional responsable no puede invocar sus reglas como justificación del incumplimiento de las obligaciones que le incumben en virtud de esta parte.

2. El párrafo 1 se entiende sin perjuicio de la aplicabilidad de las reglas de una organización internacional a las relaciones entre la organización y sus Estados y organizaciones miembros.

Artículo 33. Alcance de las obligaciones internacionales enunciadas en esta parte

1. Las obligaciones de la organización internacional responsable enunciadas en esta parte pueden existir con relación a un Estado o varios Estados, a otra organización o a varias organizaciones o a la comunidad internacional en su conjunto, dependiendo, en particular, de la naturaleza y el contenido de la obligación internacional violada y de las circunstancias de la violación.

29. artikulua. Betebeharra betetzen jarraitu beharra

Zati honetan xedaturikoaren araberako nazioarteko egitate ez-zilegiaren ondorio juridikoek ez diote eragiten nazioarteko erakunde erantzuleak urratu-tako betebeharra betetzen jarraitzeko duen eginbeharrari.

30. artikulua. Bukaraztea eta ez errepikatzea

Nazioarteko egitate ez-zilegiaren erantzule den nazioarteko erakunde behartuta dago:

- a) Egitatea bukaraztera, egitateak jarraitzen badu;
- b) Errepikatuko ez den segurtasun eta berme egokiak eskaintzera, egoerak hala eskatzen badu.

31. artikulua. Erreparazioa

1. Nazioarteko erakunde erantzulea behartuta dago osoki erreparatzera nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako galera.

2. Galerak barnean hartzen du nazioarteko erakundearen nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako kalte oro, hala materiala nola morala.

32. artikulua. Erakundearen arauen garrantzia

1. Nazioarteko erakunde erantzuleak ezin ditu bere arauak argudiatu honako zati honen indarrez haren ardura diren betebeharrak ez betetzea justifikatzeko.

2. Artikulu honen 1. paragrafoak ez du eragotziko nazioarteko erakundearen arauak aplikagarriak izatea erakundearen eta haren estatu eta erakunde kiden arteko harremani.

33. artikulua. Zati honetan adierazitako nazioarteko betebeharren irismena

1. Zati honetan adierazten diren nazioarteko erakunde erantzulearen betebeharrak izan daitezke beste estatu batekikoak edo zenbait estaturekikoak, beste erakunde batekikoak edo zenbait erakunderekikoak edo nazioarteko komunitatearekikoak, bere osotasunean harturik berau, segun zein diren, bereziki, nazioarteko betebeharratuen irizpidea eta edukia eta urraketa-irizpideak.

2. Esta parte se entiende sin perjuicio de cualquier derecho que la responsabilidad internacional de una organización internacional pueda generar directamente en beneficio de una persona o de una entidad distintas de un Estado o una organización internacional.

CAPÍTULO II

Reparación del perjuicio

Artículo 34. Formas de reparación

La reparación íntegra del perjuicio causado por el hecho internacionalmente ilícito adoptará la forma de restitución, de indemnización y de satisfacción, ya sea de manera única o combinada, de conformidad con las disposiciones de este capítulo.

Artículo 35. Restitución

La organización internacional responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligada a la restitución, es decir, a restablecer la situación que existía antes de la comisión del hecho ilícito, siempre que y en la medida en que esa restitución:

- a) No sea materialmente imposible;
- b) No entrañe una carga totalmente desproporcionada con relación al beneficio que se derivaría de la restitución en vez de la indemnización.

Artículo 36. Indemnización

1. La organización internacional responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligada a indemnizar el daño causado por ese hecho, en la medida en que dicho daño no sea reparado por la restitución.

2. La indemnización cubrirá todo daño susceptible de evaluación financiera, incluido el lucro cesante en la medida en que este sea comprobado.

Artículo 37. Satisfacción

1. La organización internacional responsable de un hecho internacionalmente ilícito está obligada a dar satisfacción por el perjuicio causado por ese hecho en la medida en que ese perjuicio no pueda ser reparado mediante restitución o indemnización.

2. Zati honek ez du eragozten nazioarteko erakunde baten nazioarteko erantzukizunak pertsona baten edo estatu bat edo nazioarteko erakunde bat ez den beste entitate baten mesedetan zuzenean sor dezakeen ezein esku-bide.

II. KAPITULUA

Galeraren erreparazioa

34. artikulua. Erreparazio-moduak

Nazioarteko egitate ez-zilegiak eragindako galeraren erreparazio osoak modu hauek izango ditu: lehengoratzea, kalte-ordaina eta satisfazioa, dela barka edo konbinaturik, kapitulu honetako xedapenen arabera.

35. artikulua. Lehengoratzea

Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den nazioarteko erakundea behartuta dago lehengoratzeraz, hau da, egitate ez-zilegia egin aurreko egoera berrezartzera, lehengoratze horrek baldintza hauek betetzen dituen neurrian:

- a) Ez izatea materialki ezinezkoa;
- b) Lehengoratzetik eratorriko litzatekeen onurak ez inplikatzera neurritz kanpoko karga kalte-ordainaren aldean.

36. artikulua. Kalte-ordaina

1. Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den nazioarteko erakundea behartuta dago egitate horrek eragindako kaltearen ordaina ematera, lehengoratzeak kalte hori konpontzen ez duen neurrian.

2. Ebaluazio finantzarioa egin dakiokkeen kalte oro estaliko du kalte-ordainak, lortu gabeko irabaziak barne, horiek egiaztatzen diren neurrian.

37. artikulua. Satisfazioa

1. Nazioarteko egitate ez-zilegi baten erantzule den nazioarteko erakundea behartuta dago egitate horrek eragindako kalteagatik satisfazioa ematera, kalte hori lehengoratzez edo kalte-ordainez errepara ez daitekeen neurrian.

2. La satisfacción puede consistir en un reconocimiento de la violación, una expresión de pesar, una disculpa formal o cualquier otra modalidad adecuada.

3. La satisfacción no será desproporcionada con relación al perjuicio y no podrá adoptar una forma humillante para la organización internacional responsable.

Artículo 38. Intereses

1. Se deben pagar intereses sobre toda suma principal adeudada en virtud de este capítulo, en la medida necesaria para asegurar la reparación íntegra. El tipo de interés y el modo de cálculo se fijarán de manera que se alcance ese resultado.

2. Los intereses se devengarán desde la fecha en que debería haberse pagado la suma principal hasta la fecha en que se haya cumplido la obligación de pago.

Artículo 39. Contribución al perjuicio

Para determinar la reparación se tendrá en cuenta la contribución al perjuicio resultante de la acción o la omisión, intencional o negligente, del Estado lesionado o la organización internacional lesionada o de toda persona o entidad en relación con la cual se exija la reparación.

Artículo 40. Medidas para asegurar el cumplimiento de la obligación de reparación

1. La organización internacional responsable adoptará todas las medidas apropiadas, de conformidad con sus reglas, a fin de que sus miembros le proporcionen los medios para el cumplimiento efectivo de las obligaciones que le incumben en virtud de este capítulo.

2. Los miembros de la organización internacional responsable adoptarán todas las medidas apropiadas que las reglas de la organización puedan requerir para que esta pueda cumplir efectivamente las obligaciones que le incumben en virtud de este capítulo.

2. Urraketa-aitorpen bat, damu-adierazpen bat, desenkusa formal bat edo beste edozein modalitate egoki izan daiteke satisfazioa.

3. Satisfazioa ez da izango galeraren aldean neurritz kanpokoa eta ezin hartuko du nazioarteko erakunde erantzulearentzat umiliagarria den forma-rik.

38. artikulua. Interesak

1. Beharrezkoa izango da kapitulu honen arabera zor den kopuru nagusia-ren gaineko interesak ordaintzea, erreparazio osoa segurtatzeko behar den neu-rrian. Interes-tasa eta kalkulatzeko modua emaitza hori lortzeko helburuarekin ezarriko dira.

2. Kopuru nagusia ordaindu behar zen datatik hasi eta ordaintzeko bete-beharra bete den datara arte sortuko dira interesak.

39. artikulua. Galeran parte izatea

Erreparazioa zehazteko, kontuan izango da zer parte izan duen galera era-giten, nahitako edo zabarkeriazko egitez edo ez-egitez, estatu kaltetuak edo na-zioarteko erakunde kaltetuak edo zeinahi pertsonak edo entitatek, zeini buruz galdatzen baita erreparazioa.

40. artikulua. Erreparatzeko betebeharra betetzea segurtatzeko neurriak

1. Nazioarteko erakunde erantzuleak egoki diren neurri guztiak hartuko ditu, bere arauen arabera, bere kideek baliabideak eman diezazkioten kapitulu honen indarrez bere ardura diren betebeharrak egiazki betetzeko.

2. Nazioarteko erakunde erantzulearen kideek erakundearen arauak eska ditzaketen neurri egoki guztiak hartuko dituzte erakundeak egiazki bete ahal izan ditzan kapitulu honen indarrez haren ardura diren betebeharrak.

CAPÍTULO III

Violaciones graves de obligaciones emanadas de normas imperativas de derecho internacional general

Artículo 41. Aplicación de este capítulo

1. Este capítulo se aplicará a la responsabilidad internacional generada por una violación grave por una organización internacional de una obligación que emane de una norma imperativa de derecho internacional general.

2. La violación de tal obligación es grave si implica el incumplimiento flagrante o sistemático de la obligación por la organización internacional responsable.

Artículo 42. Consecuencias particulares de la violación grave de una obligación en virtud de este capítulo

1. Los Estados y las organizaciones internacionales cooperarán para poner fin, por medios lícitos, a toda violación grave en el sentido del artículo 41.

2. Ningún Estado ni ninguna organización internacional reconocerá como lícita una situación creada por una violación grave en el sentido del artículo 41, ni prestará ayuda o asistencia para mantener esa situación.

3. El artículo 42 se entenderá sin perjuicio de las demás consecuencias enunciadas en esta parte y de toda otra consecuencia que una violación a la que se aplique este capítulo pueda generar según el derecho internacional.

CUARTA PARTE

MODOS DE HACER EFECTIVA LA RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL DE UNA ORGANIZACIÓN INTERNACIONAL

CAPÍTULO I

Invocación de la responsabilidad de una organización internacional

Artículo 43. Invocación de la responsabilidad por el Estado lesionado o la organización internacional lesionada

Un Estado o una organización internacional tendrán derecho como Estado lesionado o como organización internacional lesionada a invocar la responsabilidad de otra organización internacional si la obligación violada existe:

III. KAPITULUA

Nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arauetatik eratorritako betebeharren urratze larriak

41. artikulua. Kapitulu hau aplikatzea

1. Kapitulu hau aplikatuko zaio nazioarteko erakunde batek nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arau batetik eratorritako betebeharrak bat larriki urratzean sortutako nazioarteko erantzukizunari.

2. Betebeharrak hori urratzea larria da, baldin eta nazioarteko erakunde erantzuleak modu agerikoan edo sistematikoan bete ez badu betebeharra.

42. artikulua. Kapitulu honen arabera betebeharrak bat larriki urratzearen ondorio bereziak

1. Estatuak eta nazioarteko erakundeek lankidetzan jardungo dute 41. artikulua zentzuan larria den urraketa oro bide zilegizkoetatik amaitzeko.

2. Ezein estatuak ez ezein nazioarteko erakundeek ez du zilegizkotzat aitortuko 41. artikulua zentzuan larria den urraketa batek sorturiko egoera bat, ez eta laguntzarik edo sostengurik emango egoera hori mantentzeko.

3. 42. artikulua ez ditu eragotziko zati honetan adierazitako beste ondorioak, ez eta kapitulu hau aplikatzen zaion urraketa batek nazioarteko zuzenbidearen arabera sor dezakeen beste edozein ondorio.

LAUGARREN ZATIA

NAZIOARTEKO ERAKUNDE BATEN NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUNA BETEARAZTEKO MODUAK

1. KAPITULUA

Nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzea

43. artikulua. Estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak erantzukizuna galdatzea

Estatu batek edo nazioarteko erakunde batek eskubidea izango du estatu kaltetu gisa edo nazioarteko erakunde kaltetu gisa beste nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzeko, baldin eta urratutako betebeharrak bada:

- a) Con relación a ese Estado o a aquella organización internacional individualmente;
- b) Con relación a un grupo de Estados u organizaciones internacionales, del que ese Estado o aquella organización internacional forman parte, o con relación a la comunidad internacional en su conjunto, y la violación de la obligación:
 - i) Afecta especialmente a ese Estado o a esa organización internacional; o
 - ii) Es de tal índole que modifica radicalmente la situación de todos los demás Estados y organizaciones internacionales con los que existe esa obligación con respecto al ulterior cumplimiento de esta.

Artículo 44. Notificación de la reclamación por el Estado lesionado o la organización internacional lesionada

1. El Estado lesionado o la organización internacional lesionada que invoquen la responsabilidad de otra organización internacional notificarán su reclamación a esa organización.

2. El Estado lesionado o la organización internacional lesionada podrán especificar en particular:

- a) El comportamiento que debería observar la organización internacional responsable para poner fin al hecho ilícito, si ese hecho continúa;
- b) La forma que debería adoptar la reparación de conformidad con las disposiciones de la tercera parte.

Artículo 45. Admisibilidad de la reclamación

1. Un Estado lesionado no podrá invocar la responsabilidad de una organización internacional si la reclamación no se presenta de conformidad con las normas aplicables en materia de nacionalidad de las reclamaciones.

2. Cuando la reclamación esté sujeta a la norma del agotamiento de los recursos internos, el Estado lesionado o la organización internacional lesionada no podrán invocar la responsabilidad de otra organización internacional si no se han agotado todas las vías de recurso disponibles y efectivas.

- a) Estatu horrekikoa edo nazioarteko erakunde harekikoa bakarrik;
- b) Estatu hori edo nazioarteko erakunde hura parte diren estatu-talde edo nazioarteko erakunde-talde batekikoa, edo nazioarteko komunitatearekikoa, bere osotasunean harturik berau, eta baldin eta betebeharraren urraketak:
 - i) Bereziki estatu horri edo nazioarteko erakunde horri eragiten badio; edo
 - ii) Duen izaeragatik, errotik aldatzen badu haiekiko betebeharra da-goen beste estatu eta nazioarteko erakunde guztien egoera, aurre-rantzean betebeharrari betetzeari dagokionez.

44. artikulua. Estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak erreklamazioa jakinaraztea

1. Beste nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzen duen estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak erakunde hari jakinaraziko dio erreklamazioa.

2. Estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak hauek zehaztu ahal izango ditu bereziki:

- a) Nazioarteko erakunde erantzuleak izan behar lukeen jokabidea egitate ez-zilegiari amaiera emateko, egitateak jarraitzen badu;
- b) Erreparazioak izan behar lukeen forma hirugarren zatiaren xedapenen arabera.

45. artikulua. Erreklamazioaren onargarritasuna

1. Estatu kaltetuak ez du galdatu ahal izango nazioarteko erakunde baten erantzukizuna, baldin eta erreklamazioa ez bada aurkezten erreklamazioen nazionalitateari buruz aplikagarriak diren arauen arabera.

2. Erreklamazioa barne-errekurtsoak agortzearen arauari lotuta badago, estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak ez dute galdatu ahal izango beste nazioarteko erakunde baten erantzukizuna, baldin eta barne-errekurtso eskuragarri eta gauzagarri guztiak agortu ez badira.

Artículo 46. Pérdida del derecho a invocar la responsabilidad

La responsabilidad de una organización internacional no podrá ser invocada:

- a) Si el Estado lesionado o la organización internacional lesionada han renunciado válidamente a la reclamación;
- b) Si, en razón del comportamiento del Estado lesionado o la organización internacional lesionada, debe entenderse que han dado válidamente aquiescencia a la extinción de la reclamación.

Artículo 47. Pluralidad de Estados lesionados u organizaciones internacionales lesionadas

Cuando varios Estados u organizaciones internacionales sean lesionados por el mismo hecho internacionalmente ilícito de una organización internacional, cada Estado lesionado u organización internacional lesionada podrá invocar por separado la responsabilidad de la organización internacional por el hecho internacionalmente ilícito.

Artículo 48. Responsabilidad de una organización internacional y de uno o varios Estados o una o varias organizaciones internacionales

1. Cuando una organización internacional y uno o varios Estados o una o varias otras organizaciones internacionales sean responsables del mismo hecho internacionalmente ilícito, podrá invocarse la responsabilidad de cada Estado u organización en relación con ese hecho.

2. La responsabilidad subsidiaria solo podrá invocarse en la medida en que la invocación de la responsabilidad principal no haya dado lugar a reparación.

3. Los párrafos 1 y 2:

- a) No autorizan a un Estado lesionado o a una organización internacional lesionada a recibir una indemnización superior al daño que hayan sufrido;
- b) Se entenderán sin perjuicio de cualquier derecho a recurrir que el Estado o la organización internacional que hubieren dado reparación puedan tener contra los otros Estados u organizaciones internacionales responsables.

46. artikulua. Erantzukizuna galdatzeko eskubidea galtzea

Nazioarteko erakunde baten erantzukizuna ez da galdatu ahal izango:

- a) Estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak baliozko moduan uko egin badiote erreklamatzeari;
- b) Baldin eta estatu kaltetuaren edo nazioarteko erakunde kaltetuaren jorkabideagatik ulertu behar bada oniritzia eman diotela, modu baliozkoan, erreklamazioa azkentzeari.

47. artikulua. Estatu kaltetuen edo nazioarteko erakunde kaltetuen aniztasuna

Estatu edo nazioarteko erakunde bat baino gehiago direnean nazioarteko erakunde baten nazioarteko egitate ez-zilegi berak kaltetuak, estatu edo nazioarteko erakunde kaltetu bakoitzak bakarka galdatu ahal izango du nazioarteko egitate ez-zilegia burutu duen nazioarteko erakundearen erantzukizuna.

48. artikulua. Nazioarteko erakunde baten eta estatu baten edo gehiagoren edo nazioarteko erakunde baten edo gehiagoren erantzukizuna

1. Nazioarteko erakunde bat eta estatu bat edo batzuk edo nazioarteko erakunde bat edo batzuk nazioarteko egitate ez-zilegi beraren erantzule direnean, estatu edo erakunde bakoitzaren erantzukizuna galdatu ahal izango da egitate horri dagokionez.

2. Erantzukizun nagusia galdatzeak erreparaziorik ekarri ez duen neurrian bakarrik galdatu ahal izango da erantzukizun subsidiarioa.

3. Artikulu honen 1. eta 2. paragrafoek:

- a) Ez diote estatu kaltetuari edo nazioarteko erakunde kaltetuari baimenik ematen izan duten kaltea baino kalte-ordain handiagoa jasotzeko;
- b) Ez dute eragotziko erreparazioa eman duen estatuak edo nazioarteko erakundeak beste estatu edo nazioarteko erakunde erantzuleen kontra errekurritzeko izan dezaketen ezein eskubide.

Artículo 49. Invocación de la responsabilidad por un Estado o una organización internacional que no sean un Estado lesionado o una organización internacional lesionada

1. Un Estado o una organización internacional que no sean un Estado lesionado o una organización internacional lesionada tendrán derecho a invocar la responsabilidad de otra organización internacional, con arreglo al párrafo 4, si la obligación violada existe con relación a un grupo de Estados u organizaciones internacionales del que el Estado o la organización que invocan la responsabilidad forman parte y si la obligación ha sido establecida para la protección de un interés colectivo del grupo.

2. Un Estado que no sea un Estado lesionado tendrá derecho a invocar la responsabilidad de una organización internacional, con arreglo al párrafo 4, si la obligación violada existe con relación a la comunidad internacional en su conjunto.

3. Una organización internacional que no sea una organización lesionada tendrá derecho a invocar la responsabilidad de otra organización internacional, con arreglo al párrafo 4, si la obligación violada existe con relación a la comunidad internacional en su conjunto y si la salvaguardia de los intereses de la comunidad internacional en su conjunto en que se fundamenta la obligación violada forma parte de las funciones de la organización que invoca la responsabilidad.

4. Un Estado o una organización internacional con derecho a invocar la responsabilidad en virtud de los párrafos 1 a 3 podrán reclamar a la organización internacional responsable:

- a) La cesación del hecho internacionalmente ilícito y las seguridades y garantías de no repetición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 30; y
- b) El cumplimiento de la obligación de reparación de conformidad con lo dispuesto en la tercera parte, en interés del Estado lesionado o de la organización internacional lesionada o de los beneficiarios de la obligación violada.

5. Los requisitos para la invocación de la responsabilidad por parte de un Estado o una organización internacional lesionada, previstos en los artículos 44, 45, párrafo 2, y 46, serán de aplicación en caso de invocación de la responsabilidad por parte de un Estado o una organización internacional en virtud de los párrafos 1 a 4.

49. artikulua. Estatu kaltetu edo nazioarteko erakunde kaltetu ez den estatu batek edo nazioarteko erakunde batek erantzukizuna galdatzea

1. Estatu kaltetu edo nazioarteko erakunde kaltetu ez den estatu batek edo nazioarteko erakunde batek eskubidea izango du beste nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzeko, 4. paragrafoaren arabera, baldin eta urratutako betebeharra bada erantzukizuna galdatzen duen estatua edo nazioarteko erakundea parte diren estatu-talde edo nazioarteko erakunde-talde batekikoa eta baldin eta betebeharra taldearen interes kolektibo bat babesteko ezarria bada.

2. Estatu kaltetu ez den estatu batek eskubidea izango du nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzeko, 4. paragrafoaren arabera, baldin eta urratutako betebeharra nazioarteko komunitatearekikoa bada, bere osotasunean harturik berau.

3. Nazioarteko erakunde kaltetu ez den nazioarteko erakunde batek eskubidea izango du beste nazioarteko erakunde baten erantzukizuna galdatzeko, 4. paragrafoaren arabera, baldin eta urratutako betebeharra nazioarteko komunitatearekikoa bada, bere osotasunean harturik berau, eta baldin eta urratutako betebeharraren oinarri den nazioarteko komunitatearen, bere osotasunean harturik berau, interesen babesa erantzukizuna galdatzen duen erakundearen funtzioetariko bat bada.

4. Artikulu honen 1. eta 3. paragrafoen indarrez erantzukizuna galdatzeko eskubidea duen estatu batek edo nazioarteko erakunde batek nazioarteko erakunde erantzuleari erreklamatu ahal izango diote:

- a) Nazioarteko egitate ez-zilegia bukaraztea eta gehiago errepikatuko ez den segurtasunak eta bermeak, 30. artikuluan xedaturikoaren arabera; eta
- b) Erreparazioaren betebeharra betetzea hirugarren zatian xedaturikoaren arabera, estatu kaltetuaren edo nazioarteko erakunde kaltetuaren edo betebeharratuaren onuradunen interesean.

5. Estatu edo nazioarteko erakunde kaltetu batek erantzukizuna galdatzeko betekizunak, 44. artikuluan, 45.aren 2. paragrafoan eta 46.ean aurreikusitakoak izango dira estatu batek edo nazioarteko erakunde batek 1. paragrafotik 4. erakundearen indarrez erantzukizuna galdatzen duen kasuan.

Artículo 50. Alcance de este capítulo

Este capítulo se entenderá sin perjuicio del derecho que pueda tener una persona o entidad que no sea un Estado o una organización internacional a invocar la responsabilidad internacional de una organización internacional.

CAPÍTULO II

Contramedidas

Artículo 51. Objeto y límites de las contramedidas

1. El Estado lesionado o la organización internacional lesionada solamente podrán adoptar contramedidas contra una organización internacional responsable de un hecho internacionalmente ilícito con el objeto de inducirla a cumplir las obligaciones que le incumben en virtud de lo dispuesto en la tercera parte.

2. Las contramedidas se limitarán al incumplimiento temporario de obligaciones internacionales que el Estado o la organización internacional que tomen tales medidas tengan con la organización responsable.

3. En la medida de lo posible, las contramedidas se tomarán de manera que se permita la reanudación del cumplimiento de las obligaciones en cuestión.

4. En la medida de lo posible, las contramedidas se tomarán de manera que se limiten sus efectos en el ejercicio por la organización internacional responsable de sus funciones.

Artículo 52. Condiciones para la adopción de contramedidas por miembros de una organización internacional

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo 2, un Estado lesionado o una organización internacional lesionada que sean miembros de una organización internacional responsable no podrán adoptar contramedidas contra esa organización, a menos que:

- a) Se cumplan las condiciones mencionadas en el artículo 51;
- b) Las contramedidas no sean incompatibles con las reglas de la organización; y
- c) No existan medios adecuados para inducir de otro modo a la organización internacional responsable a cumplir las obligaciones que le incumben en lo referente al cese de la violación y a la reparación.

50. artikulua. Kapitulu honen irismena

Kapitulu honek ez du eragotziko estatu edo nazioarteko erakunde ez den pertsona edo entitate batek nazioarteko erakunde baten nazioarteko erantzukizuna galdatzeko izan dezakeen eskubidea.

II. KAPITULUA

Kontraneurriak

51. artikulua. Kontraneurrien xedea eta mugak

1. Estatu kaltetuak edo nazioarteko erakunde kaltetuak xede honekin barrik hartu ahal izango ditu kontraneurriak nazioarteko egitate ez-zilegiaren erantzule den nazioarteko erakunde baten kontra: hari betearazteko hirugarren zatian xedaturikoaren indarrez haren ardura diren betebeharrak.

2. Kontraneurriak hartzen dituen estatuak edo nazioarteko erakundeak erakunde erantzulearekin dituen nazioarteko betebeharrak aldi batez ez betetzera mugatuko dira neurriok.

3. Ahal den neurrian, betebeharrak horiek betetzeari berriro ekitea ahalbidetzeko moduan hartuko dira kontraneurriak.

4. Ahal den neurrian, kontraneurriak halako gisaz hartuko dira, non haien eragina muga dadin nazioarteko erakunde erantzuleak bere funtzioetan diharduenean.

52. artikulua. Nazioarteko erakunde baten kideek kontraneurriak hartzeko baldintzak

1. Hargatik eragotzi gabe 2. paragrafoan xedaturikoa, nazioarteko erakunde erantzule baten kide diren estatu kaltetu batek edo nazioarteko erakunde kaltetu batek ez dute kontraneurriak hartu ahal izango erakunde horren kontra, salbu eta:

- a) 51. artikuluan aipaturiko baldintzak betetzen badira;
- b) Kontraneurriak erakundearen arauekin bateraezinak ez badira; eta
- c) Baliabide egokirik ez badago nazioarteko erakunde erantzuleari beste modu batera betearazteko urraketa bukatzeari eta erreparazioa egiteari dagokionez haren ardura diren betebeharrak.

2. Un Estado lesionado o una organización internacional lesionada que sean miembros de una organización internacional responsable no podrán adoptar contramedidas contra esa organización en respuesta a una violación de una obligación internacional contraída en virtud de las reglas de la organización, a menos que tales contramedidas estén previstas en dichas reglas.

Artículo 53. Obligaciones que no pueden ser afectadas por las contramedidas

1. Las contramedidas no podrán afectar a:

- a) La obligación de abstenerse de recurrir a la amenaza o al uso de la fuerza, tal como está enunciada en la Carta de las Naciones Unidas;
- b) Las obligaciones establecidas para la protección de los derechos humanos;
- c) Las obligaciones de carácter humanitario que prohíben las represalias;
- d) Otras obligaciones que emanen de normas imperativas del derecho internacional general.

2. El Estado lesionado o la organización internacional lesionada que tomen contramedidas no quedarán exentos del cumplimiento de las obligaciones que les incumban:

- a) En virtud de cualquier procedimiento de solución de controversias aplicable entre el Estado lesionado o la organización internacional lesionada y la organización internacional responsable;
- b) En relación con el respeto de toda inviolabilidad de los órganos o agentes de la organización internacional responsable y de los locales, archivos y documentos de esa organización.

Artículo 54. Proporcionalidad de las contramedidas

Las contramedidas deben ser proporcionales al perjuicio sufrido, teniendo en cuenta la gravedad del hecho internacionalmente ilícito y los derechos en cuestión.

Artículo 55. Condiciones del recurso a las contramedidas

1. Antes de adoptar contramedidas, el Estado lesionado o la organización internacional lesionada:

- a) Requerirán a la organización internacional responsable, de conformidad con el artículo 44, que cumpla las obligaciones que le incumben en virtud de la tercera parte;
- b) Notificarán a la organización internacional responsable cualquier decisión de tomar contramedidas y ofrecerán negociar con esa organización.

2. Nazioarteko erakunde erantzule baten kide diren estatu kaltetu batek edo nazioarteko erakunde kaltetu batek ez dute kontraneurririk hartu ahal izango erakunde horren kontra erakundearen arauen indarrez hartutako nazioarteko betebeharrak bat urratzearen erantzunetan, salbu eta kontraneurri horiek aurreikusita badaude arau horietan.

53. artikulua. Kontraneurriek eragin ez diezaieketen betebeharrak

1. Kontraneurriek ez diete eragingo betebeharrak hauei:

Destacando la importancia que siguen teniendo la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional, a los que se hace referencia en el apartado a) del párrafo 1 del Artículo 13 de la Carta de las Naciones Unidas,

¹ *Documentos Oficiales de la Asamblea General, sexagésimo primer período de sesiones, Suplemento No. 10 (A/61/10).*

² *Ibid.*, párr. 49.

³ *Ibid.*, párr. 46.

BABES DIPLOMATIKOARI BURUZKO ARTIKULUEN PROIEKTUA

Batzar Nagusiak 2007ko abenduaren 6an onarturiko ebazpena
[oinarri harturik Seigarren Batzordearen txostena (A/62/451)]

62/67. Babes diplomatikoa

Batzar Nagusiak,

Azterturik Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak bere 58. bilkuraldian¹ egindako lanari buruzko txostenaren IV. kapitulua, zeinean jasotzen baita babes diplomatikoa buruzko artikuluen proiektua²,

Ikusirik Batzordeak erabaki zuela Batzar Nagusiari gomendatzea landu zezala konbentzio bat, babes diplomatikoa buruzko artikuluen proiektuan³ oinarritua,

Azpimarratuz nolako garrantzia izaten jarraitzen duten nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioak eta garapen progresiboak, zeinei egiten baitzaie erreferentzia Nazio Batuen Gutunaren 13. artikulua 1. paragrafoa a) atalean,

¹ *Batzar Nagusiaren Dokumentu Ofizialak, berrogeita batgarren bilkuraldia, Gehigarria:10 zk. (A/61/10).*

² *Ibid.*, 49. paragrafoa.

³ *Ibid.*, 46. paragrafoa.

Observando que el tema de la protección diplomática reviste gran importancia en las relaciones entre los Estados,

Teniendo en cuenta los comentarios y observaciones de los gobiernos¹ y los debates sobre la protección diplomática celebrados en la Sexta Comisión durante el sexagésimo segundo período de sesiones de la Asamblea General,

1. *Acoge con satisfacción* la conclusión de los trabajos de la Comisión de Derecho Internacional sobre la protección diplomática y su aprobación del proyecto de artículos y el comentario sobre el tema²;
2. *Expresa su reconocimiento* a la Comisión por su incesante contribución a la codificación y el desarrollo progresivo del derecho internacional;
3. *Señala* los artículos sobre la protección diplomática presentados por la Comisión, cuyo texto figura como anexo a la presente resolución, a la atención de los gobiernos, y les invita a que presenten por escrito al Secretario General cualquier posible observación sobre la recomendación de la Comisión de elaborar una convención basada en los artículos³;
4. *Decide* incluir en el programa provisional de su sexagésimo quinto período de sesiones un tema titulado «Protección diplomática» y seguir examinando, en el marco de un grupo de trabajo de la Sexta Comisión y teniendo en cuenta los comentarios por escrito de los gobiernos así como las opiniones expresadas en los debates del sexagésimo segundo período de sesiones de la Asamblea General, la cuestión de una convención sobre la protección diplomática, o cualquier otra medida apropiada, sobre la base de los artículos mencionados.

62.^a sesión plenaria
6 de diciembre de 2007

¹ A/62/118 y Add. 1.

² *Documentos Oficiales de la Asamblea General, sexagésimo primer período de sesiones, Suplemento No. 10 (A/61/10)*, párrs. 43 y 44.

Ikusirik babes diplomatikoaren gaiak garrantzi handia duela estatuaren arteko harremanetan,

Kontuan izanik gobernuen iruzkin eta oharrak¹ eta Batzar Nagusiaren hirurogeita bigarren bilkuraldian Seigarren Batzordean babes diplomatikoari buruz izandako eztabaidak,

1. *Poztasunez hartzen du* Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak babes diplomatikoari buruz egindako lanen amaiera eta hark artikuluko proiektuari emandako onarpena eta gaiari buruz egindako iruzkina²;
2. *Esker ona adierazten dio* Batzordeari hark nazioarteko zuzenbidearen kodifikazioari eta garapen progresiboari egiten dien etengabeko ekarpenagatik;
3. *Seinalaturik uzten ditu* babes diplomatikoari buruz Batzordeak aurkezturiko artikulukoak, zeinen testua ebazpen honen eranskinen ageri baita, gobernuak kontuan har ditzaten, eta gobernuari gonbita egiten die Idazkari Nagusiari idatziz aurkez diezaizoten artikuluetan oinarrituriko konbentzio bat lantzeaz Batzordeak eginiko gomendioari buruzko edozein ohar;
4. *Erabakitzen du* bere hirurogeita bosgarren bilkuraldiaren behin-behineko programan sartzea «Babes diplomatikoa» izeneko gai bat eta aztertzen jarraitzea, Seigarren Batzordearen lantalde baten eremuan eta kontuan hartuz gobernuen idatzizko iruzkinak zein Batzar Nagusiaren hirurogeita bigarren bilkuraldiko debateetan adierazitako iritzia, babes diplomatikoari buruzko konbentzio baten gaia, edo beste edozein neurri egoki, aipaturiko artikuluetan oinarriturik.

62. osoko bilkura
2007eko abenduaren 6a

¹ A/ 62/118 eta Add. 1.

² *Batzar Nagusiaren Dokumentu Ofizialak, berrogeita batgarren bilkuraldia, Gehigarria: 10 zk. (A/61/10), 43. eta 44. paragrafoak.*

ANEXO
PROTECCIÓN DIPLOMÁTICA
PRIMERA PARTE
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Definición y alcance

A los efectos del presente proyecto de artículos, la protección diplomática consiste en la invocación por un Estado, mediante la acción diplomática o por otros medios de solución pacífica, de la responsabilidad de otro Estado por el perjuicio causado por un hecho internacionalmente ilícito de ese Estado a una persona natural o jurídica que es un nacional del primer Estado con miras a hacer efectiva esa responsabilidad.

Artículo 2. Derecho a ejercer la protección diplomática

Un Estado tiene derecho a ejercer la protección diplomática de conformidad con el presente proyecto de artículos.

SEGUNDA PARTE
NACIONALIDAD

CAPÍTULO I
Principios generales

Artículo 3. Protección por el Estado de la nacionalidad

1. El Estado con derecho a ejercer la protección diplomática es el Estado de la nacionalidad.

2. No obstante lo dispuesto en el párrafo 1, un Estado podrá ejercer la protección diplomática con respecto a una persona que no sea nacional del mismo de conformidad con el proyecto de artículo 8.

ERANSKINA
BABES DIPLOMATIKOA
LEHENENGO ZATIA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Definizioa eta irismena

Artikulu-proiektu honi dagokionez, babes diplomatikoa da estatu batek, ekintza diplomatikoaren bidez edo konponbide baketsuko beste bitarteko bazuen bidez, beste estatu baten erantzukizuna galdatzea, estatu horrek egindako nazioarteko egitate ez-zilegi batek lehenengo estatuaren nazionalitateko pertsona natural edo juridiko bati eragindako galeragatik, erantzukizun hori egikaritzeko asmoz.

2. artikulua. Babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea

Estatu batek babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea du artikulu-proiektu honen arabera.

BIGARREN ZATIA
NAZIONALITATEA

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

3. artikulua. Nazionalitate-estatuak babesa ematea

1. Nazionalitate-estatua da babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea duen estatua.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan xedaturikoa gorabehera, estatu batek zilegi izango du babes diplomatikoa baliatzea bere nazionala ez den pertsona bati dagokionez 8. artikuluaaren proiektuaren arabera.

CAPÍTULO II

Personas naturales

Artículo 4. Estado de la nacionalidad de una persona natural

A los efectos de la protección diplomática de una persona natural, se entiende por Estado de la nacionalidad un Estado cuya nacionalidad ha adquirido dicha persona, de conformidad con la legislación de ese Estado, en razón del lugar de nacimiento, la filiación, la naturalización, la sucesión de Estados o de cualquier otro modo que no esté en contradicción con el derecho internacional.

Artículo 5. Continuidad de la nacionalidad de una persona natural

1. Un Estado tiene derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a una persona que haya sido nacional suyo de modo continuo desde la fecha en que se produjo el perjuicio hasta la fecha de la presentación oficial de la reclamación. Se presume la continuidad si esa nacionalidad existía en ambas fechas.

2. No obstante lo dispuesto en el párrafo 1, un Estado podrá ejercer la protección diplomática con respecto a una persona que sea nacional suyo en la fecha de la presentación oficial de la reclamación pero que no lo era en la fecha en la que se produjo el perjuicio, siempre que esa persona haya tenido la nacionalidad de un Estado predecesor o haya perdido su nacionalidad anterior y haya adquirido, por una razón no relacionada con la presentación de la reclamación, la nacionalidad del Estado reclamante de un modo que no esté en contradicción con el derecho internacional.

3. El actual Estado de la nacionalidad no ejercerá la protección diplomática con respecto a una persona frente a un anterior Estado de la nacionalidad de ésta en razón de un perjuicio sufrido cuando esa persona era nacional del anterior Estado de la nacionalidad y no del actual Estado de la nacionalidad.

4. Un Estado deja de tener derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a una persona que adquiere la nacionalidad del Estado contra el cual se haya presentado la reclamación después de la fecha de la presentación oficial de ésta.

II. KAPITULUA

Pertsona naturalak

4. artikulua. Pertsona natural baten nazionalitateko estatua

Pertsona natural baten babes diplomatikoari dagokionez, nazionalitate-estatutzat ulertzen da estatu hura zeinaren nazionalitatea eskuratu baitu pertsona hark, estatu haren legeriaren arabera, dela jaiotza-lekuagatik, filiazioagatik, naturalizazioagatik, estatuen ondorengotzagatik edo nazioarteko zuzenbidearekin kontraesanean ez dagoen beste edozein modutara.

5. artikulua. Pertsona natural baten nazionalitatearen jarraitutasuna

1. Estatu batek eskubidea du babes diplomatikoa baliatzeko pertsona bati dagokionez, baldin eta pertsona hori jarraitutasunez estatu horren nazional izan bada galera sortu zen datatik erreklamazio ofiziala aurkeztu zen datara arte. Baldin eta bi data horietan nazionalitate hori bazegoen, jarraitutasuna dagoen presuntzioa egiten da.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan xedaturikoa gorabehera, estatu batek zilegi izango du babes diplomatikoa baliatzea erreklamazio ofizialaren datan bere nazionala den baina galera gertatu zen datan ez zen pertsona bati dagokionez, betiere pertsona horrek aurreko estatu baten nazionalitatea izan badu edo bere aurreko nazionalitatea galdu eta, erreklamazioa aurkeztearekin zeri-kusirik ez duen arrazoi batengatik, estatu erreklamatzailaren nazionalitatea eskuratu badu nazioarteko zuzenbidearekin kontraesanean ez dagoen moduren batean.

3. Oraingo nazionalitate-estatuak ez du pertsona bati dagokionez babes diplomatikoa baliatuko pertsona horren nazionalitateko aurreko estatu baten kontra, baldin eta izandako galera pertsona hori aurreko nazionalitate-estatuaren nazional zelarik eta oraingo nazionalitate-estatuarena ez zelarik gertatua bada.

4. Estatu batek pertsona bati buruzko babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea galtzen du, baldin eta pertsona horrek erreklamazioa aurkeztu zaion estatuaren nazionalitatea eskuratzen badu erreklamazio hori ofizialki aurkezten den dataren ondoren.

Artículo 6. Nacionalidad múltiple y reclamación frente a un tercer Estado

1. Todo Estado del que sea nacional una persona que tenga doble o múltiple nacionalidad podrá ejercer la protección diplomática con respecto a esa persona frente a un Estado del que ésta no sea nacional.

2. Dos o más Estados de la nacionalidad podrán ejercer conjuntamente la protección diplomática con respecto a una persona que tenga doble o múltiple nacionalidad.

Artículo 7. Nacionalidad múltiple y reclamación frente a un Estado de la nacionalidad

Un Estado de la nacionalidad no podrá ejercer la protección diplomática con respecto a una persona frente a otro Estado del que esa persona sea también nacional, a menos que la nacionalidad del primer Estado sea predominante tanto en la fecha en la que se produjo el perjuicio como en la fecha de la presentación oficial de la reclamación.

Artículo 8. Apátridas y refugiados

1. Un Estado podrá ejercer la protección diplomática con respecto a una persona apátrida que tenga residencia legal y habitual en ese Estado en la fecha en la que se produjo el perjuicio y en la fecha de la presentación oficial de la reclamación.

2. Un Estado podrá ejercer la protección diplomática con respecto a una persona a la que ese Estado reconozca la condición de refugiado, de conformidad con las normas internacionalmente aceptadas, cuando esa persona tenga residencia legal y habitual en ese Estado en la fecha en la que se produjo el perjuicio y en la fecha de la presentación oficial de la reclamación.

3. El párrafo 2 no se aplicará cuando el perjuicio haya sido causado por un hecho internacionalmente ilícito del Estado de la nacionalidad del refugiado.

CAPÍTULO III

Personas jurídicas

Artículo 9. Estado de la nacionalidad de una sociedad

A los efectos de la protección diplomática de una sociedad, se entiende por Estado de la nacionalidad el Estado con arreglo a cuya legislación se cons-

6. artikulua. Nazionalitate anizkuna eta hirugarren estatu baten kontrako erreklamazioa

1. Nazionalitate bikoitza edo anizkuna duen pertsona bat nazional duen estatu orok babes diplomatikoa baliatu ahal izango du pertsona horri dagokionez pertsona hori nazional ez duen estatu baten kontra.

2. Bi nazionalitate-estaturik edo gehiagok batera baliatu ahal izango dute babes diplomatikoa nazionalitate bikoitza edo anizkuna duen pertsona bati dagokionez.

7. artikulua. Nazionalitate anizkuna eta nazionalitate-estatu baten kontrako erreklamazioa

Nazionalitate-estatu batek ez du baliatu ahal izango pertsona bati buruzko babes diplomatikoa beste estatu baten kontra, baldin eta pertsona hori beste estatu horren nazional ere bada, non eta lehenengo estatuaren nazionalitatea ez den nagusia hala galera gertatu zen datan nola erreklamazioa ofizialki aurkeztu zen datan.

8. artikulua. Aberrigabeak eta errefuxiatuak

1. Estatu batek zilegi izango du babes diplomatikoa baliatzea pertsona aberrigabe bati dagokionez, baldin eta pertsona horrek legezko eta ohiko bizilekua estatu horretan bazuen galera gertatu zen datan eta erreklamazioa ofizialki aurkeztu zen datan.

2. Estatu batek zilegi izango du babes diplomatikoa baliatzea estatu horrek nazioartean onartuak diren arauen arabera errefuxiatu-izaera aitortzen dion pertsona bati dagokionez, baldin eta pertsona horrek legezko eta ohiko bizilekua estatu horretan bazuen galera gertatu zen datan eta erreklamazioa ofizialki aurkeztu zen datan.

3. Artikulu honen 2. paragrafoa ez da aplikatuko errefuxiatuaren nazionalitateko estatuaren nazioarteko egitate ez-zilegi batek eragin badu galera.

III. KAPITULUA

Pertsona juridikoak

9. artikulua. Sozietate baten nazionalitateko estatua

Sozietate baten babes diplomatikoari dagokionez, sozietate hori zein estaturen legeriaren arabera eratu zen, estatu hura ulertuko da naziona-

tituyó dicha sociedad. Sin embargo, cuando la sociedad esté controlada por nacionales de otro Estado u otros Estados, no desarrolle negocios de importancia en el Estado en el que se constituyó y tenga la sede de su administración y su control financiero en otro Estado, este Estado se considerará el Estado de la nacionalidad.

Artículo 10. Continuidad de la nacionalidad de una sociedad

1. Un Estado tiene derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a una sociedad que tenía su nacionalidad, o la de su Estado predecesor, de modo continuo desde la fecha en la que se produjo el perjuicio hasta la fecha de la presentación oficial de la reclamación. Se presume la continuidad si esa nacionalidad existía en ambas fechas.

2. Un Estado deja de tener derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a una sociedad que adquiriera después de la presentación de la reclamación la nacionalidad del Estado frente al cual se presentó dicha reclamación.

3. No obstante lo dispuesto en el párrafo 1, un Estado seguirá teniendo derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a una sociedad que tenía su nacionalidad en la fecha en la que se produjo el perjuicio y que, como consecuencia de ese perjuicio, haya dejado de existir según la legislación del Estado en el que se constituyó.

Artículo 11. Protección de los accionistas

Un Estado de la nacionalidad de los accionistas de una sociedad no tendrá derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a esos accionistas en caso de perjuicio causado a la sociedad, a menos que:

- a) La sociedad haya dejado de existir, de conformidad con la legislación del Estado en el que se constituyó, por algún motivo no relacionado con el perjuicio; o
- b) La sociedad haya tenido, en la fecha en la que se produjo el perjuicio, la nacionalidad del Estado cuya responsabilidad por el perjuicio se invoca y la constitución de la sociedad en ese Estado haya sido exigida por éste como condición previa para realizar negocios en dicho Estado.

litate-estatutzat. Hala ere, sozietatea beste estatu bateko edo beste estatu batzuetako nazionalak kontrolatzen badute, eratu zen estatuan negozio garrantzizkorik ez badu eta bere administrazioaren egoitza eta kontrol finantzarioa beste estatu batean baditu, estatu hori joko da nazionalitate-estatutzat.

10. artikulua. Sozietate baten nazionalitatearen jarraitutasuna

1. Estatu batek eskubidea du babes diplomatikoa baliatzeko galera sortu zen datatik erreklamazio ofiziala aurkezten den datara arte bere nazionalitatea, edo bere aurreko estatuarena, modu jarraituan zuen sozietate bati dagokionez. Baldin eta bi data horietan nazionalitate hori bazegoen, jarraitutasuna dagoen presuntzioa egiten da.

2. Estatu batek babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea galtzen du erreklamazioa aurkeztu zaion estatuaren nazionalitatea erreklamazio hori aurkeztu ondoren eskuratzen duen sozietate bati dagokionez.

3. Artikulu honen 1. paragrafoan xedaturikoa gorabehera, estatu batek sozietate bati buruzko babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea izaten jarraituko du, baldin eta sozietate horrek estatu haren nazionalitatea bazuen galera gertatu zen datan eta, galera horren ondorioz, sozietate izateari utzi badio eratu zen estatuaren legeriaren arabera.

11. artikulua. Akziodunen babesa

Sozietate baten akziodunen nazionalitateko estatu batek ez du izango eskubiderik babes diplomatikoa baliatzeko akziodun horiei dagokionez sozietateari galera eragin zaion kasuan, salbu eta:

- a) Sozietateak sozietate izateari utzi badio, eratu zen estatuaren legeriaren arabera, galerarekin zerikusirik ez duen arrazoiren batengatik; edo
- b) Sozietateak, galera gertatu zen datan, galeragatik erantzukizuna galdatzen zaion estatuaren nazionalitatea bazuen eta sozietatea estatu horretan eratzea estatu horrek galdaturiko aurrebaldintza izan bada estatu horretan negozioak egiteko.

Artículo 12. Perjuicio directo a los accionistas

En la medida en que un hecho internacionalmente ilícito de un Estado cause un perjuicio directo a los derechos de los accionistas como tales, derechos que son distintos de los de la propia sociedad, el Estado de la nacionalidad de cualquiera de esos accionistas tendrá derecho a ejercer la protección diplomática con respecto a sus nacionales.

Artículo 13. Otras personas jurídicas

Los principios enunciados en el presente capítulo serán aplicables, según proceda, a la protección diplomática de otras personas jurídicas que no sean sociedades.

TERCERA PARTE

RECURSOS INTERNOS

Artículo 14. Agotamiento de los recursos internos

1. Un Estado no podrá presentar una reclamación internacional en razón de un perjuicio causado a uno de sus nacionales o a una de las personas a que se refiere el proyecto de artículo 8 antes de que la persona perjudicada haya agotado los recursos internos, salvo lo dispuesto en el proyecto de artículo 15.

2. Por «recursos internos» se entienden los recursos legales que puede interponer una persona perjudicada ante los tribunales u órganos, sean éstos judiciales o administrativos, ordinarios o especiales, del Estado cuya responsabilidad por causar el perjuicio se invoca.

3. Se deberán agotar los recursos internos cuando una reclamación internacional, o una petición de sentencia declarativa relacionada con la reclamación, se funde predominantemente en un perjuicio causado a un nacional o a una de las personas a que se refiere el proyecto de artículo 8.

Artículo 15. Excepciones a la regla del agotamiento de los recursos internos

No será necesario agotar los recursos internos cuando:

- a) No haya razonablemente disponibles recursos internos que provean una reparación efectiva o los recursos internos no ofrezcan ninguna posibilidad razonable de obtener esa reparación;

12. artikulua. Akziodunei eragindako galera zuzena

Estatu baten nazioarteko egitate ez-zilegi batek galera zuzena eragiten badie akziodunek akziodun gisa dituzten eskubideei, sozietatearenak bera-renak ez diren eskubideei, akziodun horietariko edozeinen nazionalitateko estatuak zilegi izango du babes diplomatikoa baliatzea bere nazionalei dagokienez.

13. artikulua. Beste pertsona juridiko batzuk

Kapitulu honetan adierazitako printzipioak aplikagarriak izango zaizkio, dagokionaren arabera, sozietate ez diren beste pertsona juridiko batzuen babes diplomatikoari.

HIRUGARREN ZATIA BARNE-ERREKURTSOAK

14. artikulua. Barne-errekurtsuak agortzea

1. Estatu batek ez du aurkeztu ahal izango nazioarteko erreklamaziorik bere nazionaletariko bati edo 8. artikuluaaren proiektuak aipatzen dituen pertsonetarik bati eragindako galera batengatik pertsona kaltetuak barne-errekurtsuak agortzen dituen baino lehenago, 15. artikuluaaren proiektuan xedaturikoa salbu.

2. «Barne-errekurtsuak» esaten denean, ulertuko da legezko errekurtsuak direla, pertsona kaltetuak eska ditzakeenak galera eragitearen erantzukizuna galdatzen zaion estatuaren auzitegien edo organoen aurrean, direla horiek judizialak edo administratiboak, arruntak edo bereziak.

3. Barne-errekurtsuak agortu beharko dira, baldin eta nazioarteko erreklamazio bat, edo erreklamazioarekin erlazionaturiko epai deklaratio baten eskaera bat, nazional bati edo 8. artikuluaaren proiektuak aipatzen dituen pertsonetarik bati eragindako galera batean oinarritzen bada nagusiki.

15. artikulua. Barne-errekurtsuak agortzearen arauaren salbuespenak

Ez da beharrezko izango barne-errekurtsuak agortzea, baldin eta:

- a) Egiazko erreparazioa ekarriko duten barne-errekurtsuak arrazoizko moduan eskuratzetik ez badago edo barne-errekurtsuok ez badute arrazoizko aukerarik eskaintzen erreparazio hori lortzeko;

- b) En la tramitación del recurso exista dilación indebida atribuible al Estado cuya responsabilidad se invoca;
- c) No existía en la fecha en la que se produjo el perjuicio vínculo pertinente entre la persona perjudicada y el Estado cuya responsabilidad se invoca;
- d) La persona perjudicada esté manifiestamente impedida de ejercer los recursos internos; o
- e) El Estado cuya responsabilidad se invoca haya renunciado al requisito de que se agoten los recursos internos.

CUARTA PARTE

DISPOSICIONES DIVERSAS

Artículo 16. Acciones o procedimientos distintos de la protección diplomática

El derecho de los Estados, las personas naturales, las personas jurídicas u otras entidades a recurrir, de conformidad con el derecho internacional, a acciones o procedimientos distintos de la protección diplomática para obtener la reparación del perjuicio sufrido como resultado de un hecho internacionalmente ilícito no resultará afectado por el presente proyecto de artículos.

Artículo 17. Normas especiales de derecho internacional

El presente proyecto de artículos no se aplica en la medida en que sea incompatible con normas especiales de derecho internacional, tales como disposiciones de tratados relativas a la protección de las inversiones.

Artículo 18. Protección de la tripulación de un buque

El derecho del Estado de la nacionalidad de los miembros de la tripulación de un buque a ejercer la protección diplomática no resulta afectado por el derecho del Estado de la nacionalidad del buque a exigir reparación en favor de los miembros de la tripulación, independientemente de la nacionalidad de éstos, cuando hayan sufrido un perjuicio en relación con un daño causado al buque por un hecho internacionalmente ilícito.

Artículo 19. Práctica recomendada

Un Estado que tenga derecho a ejercer la protección diplomática de conformidad con el presente proyecto de artículos debería:

- b) Erantzukizuna galdatzen zaion estatuari egotz dakiokkeen atzerapen bigabe bat badago errekurtsioa tramitatzean;
- c) Galera gertatu zen datan lotura pertinentzerik ez bazegoen kalteturiko pertsonaren eta erantzukizuna galdatzen zaion estatuaren artean;
- d) Pertsona kaltetua nabarmen ezindua badago barne-errekurtsioak baliatzeke; edo
- e) Erantzukizuna galdatzen zaion estatuak uko egin badio barne-errekurtsioak agortzeko betekizunari.

LAUGARREN ZATIA

ASKOTARIKO XEDAPENAK

16. artikulua. Babes diplomatikoaz besteko akzioak edo prozedurak

Estatuak, pertsona naturalek, pertsona juridikoek edo beste entitate batzuek nazioarteko egitate ez-zilegi baten ondorioz jasandako galeraren erreparazioa lortzeko babes diplomatikoaz besteko akzioetara edo prozeduretara nazioarteko zuzenbidearen arabera jotzeko duten eskubideak ez du artikuluproiektu honen eraginik izango.

17. artikulua. Nazioarteko zuzenbidearen arau bereziak

Artikulu-proiektu hau ez da aplikatzen baldin eta bateraezina bada nazioarteko zuzenbidearen arau bereziekin, hala nola inbertsioen babesari buruzko tratatu-xedapenekin.

18. artikulua. Itsasontzi bateko eskifaiaren babesa

Itsasontzi bateko eskifaiaren kideen nazionalitateko estatuak babes diplomatikoa baliatzeko duen eskubideari ez dio eragingo itsasontziaren nazionalitateko estatuak eskifaiaren kideen alde erreparazioa galdatzeko duen eskubideak, edozein ere dela kideon nazionalitatea, nazioarteko egitate ez-zilegi batek itsasontziari eragindako kalte batekin erlazionaturiko galera bat jasan dutenean.

19. artikulua. Praktika gomendatua

Artikulu-proiektu honen arabera babes diplomatikoa baliatzeko eskubidea duen estatu batek zera egin behar luke:

- a) Considerar debidamente la posibilidad de ejercer la protección diplomática, especialmente cuando se haya producido un perjuicio grave;
- b) Tener en cuenta, siempre que sea factible, la opinión de las personas perjudicadas en cuanto al recurso a la protección diplomática y a la reparación que deba tratarse de obtener; y
- c) Transferir a la persona perjudicada toda indemnización que se obtenga del Estado responsable por el perjuicio, a excepción de cualesquiera deducciones razonables.

- a) Behar bezala aztertu babes diplomatikoa baliatzeko aukera, bereziki galera larri bat gertatu denean;
- b) Kontuan hartu, hartarako modua dagoenean, pertsona kaltetuen iritzia babes diplomatikoaren errekursoari buruz eta lortzen ahalegindu behar den erreparazioari buruz; eta
- c) Pertsona kaltetuari transferitu galeraren erantzule den estatuarengandik lortzen den kalte-ordain oro, arrazoizko edozein kenkari salbu.

SECCIÓN II:
INMUNIDADES JURISDICCIONALES
DE LOS ESTADOS Y DE SUS BIENES

II. ATALA:
ESTATUEN ETA HAIEN ONDASUNEN
JURISDIKZIO-INMUNITATEAK

CONVENCIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS
SOBRE LAS INMUNIDADES JURISDICCIONALES
DE LOS ESTADOS Y DE SUS BIENES,
DE 2 DE DICIEMBRE DE 2004

Convención de las Naciones Unidas sobre las inmunidades jurisdiccionales
de los Estados y de sus bienes

Los Estados Partes en la presente Convención,

Considerando que las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes constituyen un principio generalmente aceptado en el derecho internacional consuetudinario,

Teniendo presentes los principios de derecho internacional consagrados en la Carta de las Naciones Unidas,

Considerando que una convención internacional sobre las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes fortalecería la preeminencia del derecho y la seguridad jurídica, particularmente en las relaciones de los Estados con las personas naturales o jurídicas, y contribuiría a codificar y desarrollar el derecho internacional y a armonizar la práctica en este ámbito,

Teniendo en cuenta la evolución de la práctica de los Estados respecto de las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes,

Afirmando que las normas del derecho internacional consuetudinario seguirán rigiendo las cuestiones que no estén reguladas por lo dispuesto en la presente Convención,

Han convenido en lo siguiente:

ESTATUEN ETA HAIEN ONDASUNEN
JURISDIKZIO-INMUNITATEEI BURUZKO
NAZIO BATUEN KONBENTZIOA,
2004KO ABENDUAREN 2KOA

**Estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei buruzko
Nazio Batuen Konbentzioa**

Konbentzio honetan parte diren estatuek,

Kontuan izanik estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateak printzipio orokorki onartua direla nazioarteko ohiturazko zuzenbidean,

Gogoan izanik Nazio Batuen Gutunean finkaturiko nazioarteko zuzenbidearen printzipioak,

Kontuan harturik estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei buruzko nazioarteko konbentzio batek zuzenbidearen lehentasuna eta ziuertasun juridikoa indartuko lituzkeela, bereziki estatuen eta pertsona naturalen eta juridikoen arteko harremanetan, eta nazioarteko zuzenbidea kodifikatzen eta garatzen eta arlo horretan praktika harmonizatzen lagunduko lukeela,

Kontuan harturik estatuen praktikaren bilakaera estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei dagokienez,

Baieztatuz ezen nazioarteko ohiturazko zuzenbidearen arauak eraenduko dituztela aurrerantzean ere Konbentzio honen xedapenetan arauturik ez dauden gaiak.

Hau adostu dute:

PARTE I
INTRODUCCIÓN

Artículo 1. Alcance de la presente Convención

La presente Convención se aplica a la inmunidad de la jurisdicción de un Estado y de sus bienes ante los tribunales de otro Estado.

Artículo 2. Términos empleados

1. Para los efectos de la presente Convención:

- a) se entiende por «tribunal» cualquier órgano de un Estado, sea cual fuere su denominación, con potestad para ejercer funciones judiciales;
- b) se entiende por «Estado»:
 - i) el Estado y sus diversos órganos de gobierno;
 - ii) los elementos constitutivos de un Estado federal o las subdivisiones políticas del Estado, que estén facultados para realizar actos en el ejercicio de la autoridad soberana y actúen en tal carácter;
 - iii) los organismos o instituciones del Estado u otras entidades, en la medida en que estén facultados para realizar y realicen efectivamente actos en ejercicio de la autoridad soberana del Estado;
 - iv) los representantes del Estado cuando actúen en tal carácter;
- c) se entiende por «transacción mercantil»:
 - i) todo contrato o transacción mercantil de compraventa de bienes o prestación de servicios;
 - ii) todo contrato de préstamo u otra transacción de carácter financiero, incluida cualquier obligación de garantía o de indemnización concerniente a ese préstamo o a esa transacción;
 - iii) cualquier otro contrato o transacción de naturaleza mercantil, industrial o de arrendamiento de obra o de servicios, con exclusión de los contratos individuales de trabajo.

2. Para determinar si un contrato o transacción es una «transacción mercantil» según lo dispuesto en el apartado *c)* del párrafo 1, se atenderá principalmente a la naturaleza del contrato o de la transacción, pero se tendrá en cuenta también su finalidad si así lo acuerdan las partes en el contrato o la transacción

I. ZATIA

SARRERA

1. artikulua. Konbentzio honen irismena

Konbentzio hau estatu batek eta haren ondasunek beste estatu baten auzitegien aurrean duten jurisdikzioaren immunitateari aplikatzen zaio.

2. artikulua. Erabilitako terminoak

1. Konbentzio honi dagokionez:

- a) «auzitegia» esaten denean, estatu baten edozein organo dela ulertzen da, edozein ere dela haren izendapena, funtzio judizialak baliatzeko ahalak dituen;
- b) «estatu» esaten denean, hau da ulertzen dena:
 - i) estatua eta haren gobernu-organo guztiak;
 - ii) estatu federal bat eratzen duten elementuak edo estatuaren azpizati politikoak, autoritate subiranoa baliatuz egintzak burutzeko ahalmena izan eta funtzio horretan dihardutenak;
 - iii) estatuaren organismoak edo erakundeak edo beste entitate batzuk, estatuaren autoritate subiranoa baliatuz egintzak burutzeko ahalmena duten eta egintzok egiazki burutzen dituzten neurrian;
 - iv) estatuaren ordezkariak, funtzio horretan dihardutenean;
- c) «merkataritza-transakzioa» esaten denean, hau ulertzen da:
 - i) ondasunak salerosteko edo zerbitzuak emateko merkataritza-kontratu edo -transakzio oro;
 - ii) mailegu-kontratu edo beste transakzio finantzario oro, barne harturik mailegu horri edo transakzio horri buruzko edozein berme-betebehar edo kalte-ordainerako betebehar;
 - iii) merkataritza-izaerako, izaera industrialeko edo obra- zein zerbitzu-errentamenduko beste edozein kontratu edo transakzio, lan-kontratu indibidualak izan ezik.

2. Kontratu edo transakzio bat 1. paragrafoaren c) atalean xedaturikoaren arabera «merkataritza-transakzio» bat den erabakitzeko, kontratuaren edo transakzioaren izaerari begiratuko zaio nagusiki, baina kontuan izango da, orobat, haren helburua, hala adosten badute kontratuko edo transakzioko alderdiek

o si, en la práctica del Estado que es parte en uno u otra, tal finalidad es pertinente para la determinación del carácter no mercantil del contrato o de la transacción.

3. Las disposiciones de los párrafos 1 y 2 relativas a la terminología empleada en la presente Convención se entenderán sin perjuicio del empleo de esa terminología o del sentido que se le pueda dar en otros instrumentos internacionales o en el derecho interno de cualquier Estado.

Artículo 3. Privilegios e inmunidades no afectados por la presente Convención

1. La presente Convención se entenderá sin perjuicio de los privilegios e inmunidades de que goza un Estado según el derecho internacional en relación con el ejercicio de las funciones de:

- a) sus misiones diplomáticas, sus oficinas consulares, sus misiones especiales, sus misiones ante organizaciones internacionales o sus delegaciones en órganos de organizaciones internacionales o en conferencias internacionales; y
- b) las personas adscritas a ellas.

2. La presente Convención se entenderá sin perjuicio de los privilegios e inmunidades que el derecho internacional reconoce *ratione personae* a los Jefes de Estado.

3. La presente Convención se aplicará sin perjuicio de la inmunidad de que goce un Estado, en virtud del derecho internacional, respecto de las aeronaves o los objetos espaciales de propiedad de un Estado u operados por un Estado.

Artículo 4. Irretroactividad de la presente Convención

Sin perjuicio de la aplicación de cualesquiera normas enunciadas en la presente Convención a las que las inmunidades jurisdiccionales de los Estados y de sus bienes estén sometidas en virtud del derecho internacional independientemente de la presente Convención, ésta no se aplicará a ninguna cuestión relativa a las inmunidades jurisdiccionales de los Estados o de sus bienes que se suscite en un proceso incoado contra un Estado ante un tribunal de otro Estado antes de la entrada en vigor de la presente Convención respecto de esos Estados.

edo baldin eta, batean zein bestean alderdi den estatuaren praktikan, helburu hori pertinentea bada kontratua edo transakzioa merkataritza izaerakoa ez dela erabakitzeko.

3. Konbentzio honetan erabilitako terminologiari buruzko 1. eta 2. paragrafoetako xedapenek ez dute eragotziko beste tresna batzuetan edo edozein estaturen barne-zuzenbidean terminologia hori erabiltzea edo beroietan terminologia horri eman dakioken zentzua.

3. artikulua. Konbentzio honek eragiten ez dien pribilegioak eta immunitateak

1. Konbentzio honek ez ditu eragotziko estatu batek nazioarteko zuzenbidearen arabera dituen pribilegioak eta immunitateak honako funtzio hauek baliatzeri dagokionez:

- a) haren misio diplomatikoak, haren bulego kontsularrak, haren misio bereziak, nazioarteko erakundeen aurrean dituen misioak edo nazioarteko erakundeen organoetan edo nazioarteko konferentzietan dituen ordezkaritzak; eta
- b) haiei atxikiriko pertsonak.

2. Konbentzio honek ez ditu eragotziko nazioarteko zuzenbideak estatuburuari *ratione personae* aitortzen dizkien pribilegioak eta immunitateak.

3. Konbentzio hau aplikatzeak ez du eragotziko estatu batek nazioarteko zuzenbidearen indarrez duen immunitatea, estatu baten jabetzakoak diren edo estatu batek maneiatzen dituen aireontziei edo objektu espazialei dago kienez.

4. artikulua. Konbentzio honen atzeraeraginik eza

Hargatik eragotzi gabe Konbentzio honetan adierazitako edozein arau aplikatzea, Konbentzio honetatik kanpo, nazioarteko zuzenbidearen indarrez, haren menara baldin badaude estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateak, Konbentzio hau ez zaio aplikatuko estatu baten kontra beste estatu baten auzitegi baten aurrean estatuen eta haien ondasunen jurisdikzio-immunitateei dagokienez abiarazitako prozesu batean sortutako ezein arazori, baldin eta arazoa bada Konbentzio hau estatu horiei dagokienez indarrean sartu baino lehenago sortua.

PARTE II
PRINCIPIOS GENERALES

Artículo 5. Inmunidad del Estado

Todo Estado goza, para sí y sus bienes, de inmunidad de jurisdicción ante los tribunales de otro Estado, según lo dispuesto en la presente Convención.

Artículo 6. Modos de hacer efectiva la inmunidad del Estado

1. Un Estado hará efectiva la inmunidad a que se refiere el Artículo 5 absteniéndose de ejercer jurisdicción en un proceso incoado ante sus tribunales contra otro Estado y, a estos efectos, velará por que sus tribunales resuelvan de oficio la cuestión del respeto de la inmunidad de ese otro Estado a que se refiere el artículo 5.

2. Un proceso ante un tribunal de un Estado se entenderá incoado contra otro Estado si éste:

- a) es mencionado como parte en el proceso; o
- b) no es mencionado como parte en el proceso, pero este proceso tiende efectivamente a menoscabar los bienes, derechos, intereses o actividades de ese otro Estado.

Artículo 7. Consentimiento expreso al ejercicio de jurisdicción

1. Ningún Estado podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción en un proceso ante un tribunal de otro Estado en relación con una cuestión o un asunto si ha consentido expresamente en que ese tribunal ejerza jurisdicción en relación con esa cuestión o ese asunto:

- a) por acuerdo internacional;
- b) en un contrato escrito; o
- c) por una declaración ante el tribunal o por una comunicación escrita en un proceso determinado.

2. El acuerdo otorgado por un Estado respecto de la aplicación de la ley de otro Estado no se interpretará como consentimiento en el ejercicio de jurisdicción por los tribunales de ese otro Estado.

II. ZATIA

PRINTZIPIO OROKORRAK

5. artikulua. Estatuaren immunitatea

Estatu orok du, beretzat eta bere ondasunentzat, jurisdikzio-immunitatea beste estatu baten auzitegien aurrean, Konbentzio honetan xedaturikoaren arabera.

6. artikulua. Estatuaren immunitatea egikaritzeko moduak

1. Bere auzitegien aurrean beste estatu baten kontra abiarazitako prozesu batean jurisdikzioa baliatzeari uko eginez egikarituko du Estatu batek 5. artikuluan aipaturiko immunitatea, eta, horretarako, begiratuko du bere auzitegiek ofizioz ebatz dezaten 5. artikuluan aipatzen den beste estatu horren immunitatearekiko errespetuaren arazoa.

2. Estatu baten auzitegi batean abiarazitako prozesu bat beste estatu baten kontra abiarazitakotzat ulertuko da baldin eta beste estatu hori:

- a) alderdi gisa aipatzen bada prozesuan; edo
- b) alderdi gisa aipatzen ez bada prozesuan, baina prozesu horrek beste estatu horren ondasunak, eskubideak, interesak edo jarduerak gutxiaraztea bilatzen badu.

7. artikulua. Jurisdikzioa baliatzeko berariazko adostasuna

1. Ezein estatuk ez du baliarazi ahal izango jurisdikzio-immunitatea beste estatu baten auzitegi baten aurrean arazo edo auzi bati buruz abiarazitako prozesu batean, baldin eta espresuki adostasuna eman badu auzitegi horrek jurisdikzioa balia dezan arazo edo auzi horri dagokionez:

- a) nazioarteko akordioz;
- b) kontratu idatzi batean; edo
- c) auzitegiaren aurrean egindako adierazpen baten bidez edo prozesu jakin batean idatziz egindako komunikazio baten bidez.

2. Estatu batek beste estatu baten legea aplikatzeari dagokionez emandako adostasuna ez da interpretatuko beste estatu horren auzitegiek jurisdikzioa baliatzeko adostasuntzat.

Artículo 8. Efecto de la participación en un proceso ante un tribunal

1. Ningún Estado podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción en un proceso ante un tribunal de otro Estado:

- a) si él mismo ha incoado ese proceso; o
- b) si ha intervenido en ese proceso o ha realizado cualquier otro acto en relación con el fondo. No obstante, el Estado, si prueba ante el tribunal que no pudo haber tenido conocimiento de hechos en que pueda fundarse una demanda de inmunidad hasta después de haber realizado aquel acto, podrá hacer valer la inmunidad basándose en esos hechos, con tal de que lo haga sin dilación.

2. No se entenderá que un Estado ha consentido en que un tribunal de otro Estado ejerza jurisdicción si interviene en un proceso o realiza cualquier otro acto con el solo objeto de:

- a) hacer valer la inmunidad; o
- b) hacer valer un derecho o interés sobre bienes objeto de litigio en el proceso.

3. La comparecencia de un representante de un Estado ante un tribunal de otro Estado en calidad de testigo no se interpretará como consentimiento del primer Estado en el ejercicio de jurisdicción por ese tribunal.

4. La incomparecencia de un Estado en un proceso ante un tribunal de otro Estado no se interpretará como consentimiento del primer Estado en el ejercicio de jurisdicción por ese tribunal.

Artículo 9. Reconveniones

1. Ningún Estado que incoe un proceso ante un tribunal de otro Estado podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción ante ese tribunal en lo concerniente a una reconvenición basada en la misma relación jurídica o en los mismos hechos que la demanda principal.

2. Ningún Estado que intervenga en un proceso ante un tribunal de otro Estado para presentar una demanda podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción ante ese tribunal en lo concerniente a una reconvenición basada en la misma relación jurídica o en los mismos hechos que la demanda presentada por él.

3. Ningún Estado que formule reconvenición en un proceso incoado contra él ante un tribunal de otro Estado podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción ante ese tribunal en lo concerniente a la demanda principal.

8. artikulua. Auzitegi baten aurrean prozesu batean parte hartzearen eragina

1. Ezein estatuk ez du baliarazi ahal izango jurisdikzio-immunitatea beste estatu baten auzitegi baten aurrean abiarazitako prozesu batean:

- a) berak abiarazi badu prozesu hori; edo
- b) prozesu horretan parte hartu badu edo beste edozein egintza egin badu funtsari dagokionez. Hala ere, estatuak, auzitegiaren aurrean frogatzen badu ez zuela jakin ahal izan immunitate-demanda bat oinarritzen den egitateen berri egintza hura egin zen arte, zilegi izango du immunitatea baliaraztea egitate horietan oinarriturik, baldin eta luzamendurik gabe baliarazten badu.

2. Ez da ulertuko estatu batek adostasuna eman duela beste estatu baten auzitegiak jurisdikzioa baliatzeko, baldin eta prozesu batean parte hartzen badu edo beste edozein egintza egiten badu xede bakar honekin:

- a) immunitatea baliaraztea; edo
- b) prozesuan auzitan diren ondasunen gaineko eskubide edo interes bat baliaraztea.

3. Estatu baten ordezkari bat beste estatu baten auzitegian lekuko gisa agertzea ez da interpretatuko lehenengo estatuaren adostasuntzat auzitegi horrek jurisdikzioa balia dezan.

4. Estatu bat beste estatu baten auzitegiaren aurrean abiarazitako prozesu batean ez agertzea ez da interpretatuko lehenengo estatuaren adostasuntzat auzitegi horrek jurisdikzioa baliatzeko.

9. artikulua. Errekonbentzioak

1. Beste estatu baten auzitegiaren aurrean prozesu bat abiarazten duen ezein estatuk ez du zilegi izango auzitegi horren aurrean jurisdikzio-immunitatea baliaraztea demanda nagusiaren erlazio juridiko berean edo egitate beretan oinarrituriko errekonbentzio bati dagokionez.

2. Demanda bat jartzeko beste estatu baten auzitegiaren aurrean prozesu bat abiarazten duen ezein estatuk ez du zilegi izango auzitegi horren aurrean jurisdikzio-immunitatea baliaraztea berak jarritako demandaren erlazio juridiko berean edo egitate beretan oinarrituriko errekonbentzio bati dagokionez.

3. Beste estatu baten auzitegiaren aurrean beraren kontra abiarazitako prozesu batean errekonbentzioa formulatzen duen ezein estatuk ez du zilegi izango auzitegi horren aurrean jurisdikzio-immunitatea baliaraztea demanda nagusiari dagokionez.

PARTE III

**PROCESOS EN QUE LA INMUNIDAD DEL ESTADO
NO SE PUEDE HACER VALER**

Artículo 10. Transacciones mercantiles

1. Si un Estado realiza una transacción mercantil con una persona natural o jurídica extranjera, y si en virtud de las normas aplicables de derecho internacional privado los litigios relativos a esa transacción mercantil corresponden a la jurisdicción de un tribunal de otro Estado, el Estado no podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción ante ese tribunal en ningún proceso basado en dicha transacción mercantil.

2. Lo dispuesto en el párrafo 1 no se aplica:

- a) en el caso de una transacción mercantil entre Estados; o
- b) si las partes en la transacción mercantil han pactado expresamente otra cosa.

3. Cuando una empresa estatal u otra entidad creada por un Estado que esté dotada de personalidad jurídica propia y tenga capacidad:

- a) para demandar o ser demandada; y
- b) para adquirir bienes, tener su propiedad o posesión y disponer de ellos, incluidos bienes que ese Estado le haya autorizado a explotar o a administrar,

intervenga en un proceso relativo a una transacción mercantil en la cual sea parte dicha entidad, la inmunidad de jurisdicción de que goce ese Estado no resultará afectada.

Artículo 11. Contratos de trabajo

1. Salvo que los Estados interesados convengan otra cosa, ningún Estado podrá hacer valer la inmunidad de jurisdicción ante un tribunal de otro Estado, por lo demás competente, en un proceso relativo a un contrato de trabajo entre el Estado y una persona natural respecto de un trabajo ejecutado o que haya de ejecutarse total o parcialmente en el territorio de ese otro Estado.

III. ZATIA
ESTATUAREN IMMUNITATEA BALIARAZ
EZ DAITEKEEN PROZESUAK

10. artikulua. Merkataritza-transakzioak

1. Baldin eta estatu batek merkataritza-transakzio bat egiten badu atzerriko pertsona natural edo juridiko batekin, eta baldin eta nazioarteko zuzenbide pribatuaren arau aplikagarrien indarrez merkataritza-transakzio horri buruzko auziak beste estatu baten auzitegiaren jurisdikzioari badagozkio, estatuak ez du baliarazi ahal izango jurisdikzio-immunitatea auzitegi horren aurrean merkataritza-transakzio horretan oinarrituriko ezein prozesutan.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan xedaturikoa ez da aplikatuko:

- a) estatuen arteko merkataritza-transakzio baten kasuan; edo
- b) merkataritza-transakzioko alderdiek beste zerbait hitzartu badute espresuki.

3. Baldin eta enpresa estatal batek edo estatuak sorturiko beste entitate batek, nortasun juridiko propioa eta gaitasuna dituelarik:

- a) demanda jartzeko edo demandatua izateko; eta
- b) ondasunak eskuratzeko, haien jabe izateko edo haiek edukitzeko eta erabiltzeko, barne harturik estatu horrek ustiatzeko edo kudeatzeko baimendu dizkion ondasunak,

parte hartzen badu entitate hori alderdi den merkataritza-transakzio bati buruzko prozesu batean, estatu horrek duen jurisdikzio-immunitateak ez du eraginik jasango.

11. artikulua. Lan-kontratuak

1. Estatu interesdunek besterik hitzartu ezean, ezein estatuk ez du baliarazi ahal izango jurisdikzio-immunitatea beste estatu baten auzitegi baten aurrean, bestela eskudun izanik berau, estatuaren eta pertsona natural baten artean beste estatu horretan osorik edo partez egindako edo egin beharreko lanaren inguruko kontratu bati buruzko prozesu batean.

2. Lo dispuesto en el párrafo 1 no se aplica:

- a) si el trabajador ha sido contratado para desempeñar funciones especiales en el ejercicio del poder público;
- b) si el empleado es:
 - i) un agente diplomático, según se define en la Convención de Viena sobre Relaciones Diplomáticas de 1961;
 - ii) un funcionario consular, según se define en la Convención de Viena sobre Relaciones Consulares de 1963;
 - iii) un miembro del personal diplomático de las misiones permanentes ante las organizaciones internacionales, de las misiones especiales, o que haya sido designado para representar al Estado en conferencias internacionales; o
 - iv) cualquier otra persona que goce de inmunidad diplomática;
- c) si el objeto del proceso es la contratación, la renovación del contrato de trabajo o la reposición de una persona natural;
- d) si el objeto del proceso es la destitución o la rescisión del contrato de una persona y, conforme determine el Jefe de Estado, el Jefe de Gobierno o el Ministro de Relaciones Exteriores del Estado empleador, dicho proceso menoscabe los intereses de seguridad de ese Estado;
- e) el empleado fuese un nacional del Estado empleador en el momento en que se entabló el procedimiento, a menos que esta persona tenga su residencia permanente en el Estado del foro; o
- f) si el Estado empleador y el trabajador han convenido otra cosa por escrito, salvo que por motivos de orden público los tribunales del Estado del foro tengan conferida jurisdicción exclusiva por razón de la materia objeto del proceso.

Artículo 12. Lesiones a las personas y daños a los bienes

